



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE



ĒKINTZEN BILDUMA BILAN D'ACTIVITES 2010



2011ko apirilaren 9ko
biltzar nagusia

*Assemblée générale
du 9 avril 2011*

Euskal kultur erakundea — Institut culturel basque

Lota jauregia — Château Lota — BP 6

64480 Uztaritze — Ustaritz

Tel 05.59.93.25.25 | info@eke.org

www.eke.org



AURKIBIDEA

- Euskal kultur erakundeko barne antolaketa.....4
- Euskal kultur erakundeko ekintzak :.....7

Euskal kultur erakundeko barne-antolaketa

* _ * _ * _ * _ *

BILTZAR NAGUSIA :

281 kideek osatzen dute : 135 kultur elkarte eta 146 herri (Euskal kultura sostengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Euskal elkarten ordezkariak :

Danielle DUHALDE, Christiane GIRAUD,
Frantxua COUSTEAU, Paxkal INDO, Patrick LARRALDE eta ondotik Claude IRURETAGOiena,
Beñat CHASSEVENT, Ximun CARRERE, Peio SOULE

Legezko ordezkariak :

Estatua :

Philippe REY, eta ondotik François-Xavier CECCALDI (prefeta),
Eric MORVAN, eta ondotik Laurent NUNEZ (suprefeta),
Claude JEAN eta Jean-François SIBERS (DRAC Aquitaine).

Akitania lurraldeko kontseilua :

Jean-Joseph LISSAR, eta ondotik Alice LEICIAGUECAHAR (Lurraldeko kontseilaria),
François MAITIA (Lurraldeko kontseilaria),

Pyrénées-Atlantiques-etako Kontseilu Orokorra :

Max BRISSON (Biarritzeko kontseilari orokorra).
Kotte ECENARRO (Hendaiaiko kontseilari orokorra)

Euskal kultura sostengatzen duen Herriarteko sindikata :

Paco ARIZMENDI (Donibane-Garaziko hautetsia)
Jean-René ETCHEGARAY (Baionako lehen axuanta).

Pertsonalitate kalifikatuak :

Jean-Baptiste COYOS, Mikel ERRAMOUSPE,
Pier Pol BERZAITZ, Lurdes AUZMENDI

Beti gomituak :

Erramun BACHOC (hizkuntzalaria),
Estebe EYHERABIDE, eta ondotik Bernadette SOULE
(Euskararen erakunde publikoa)

Konduetarako komisarioa :

Michel FAGOAGA

BULEGOA :

Lehendakaria :.....Mikel ERRAMOUSPE

Lehendakariordea :.....François MAITIA

Diruzaina :.....Frantxua COUSTEAU

Idazkaria :.....Beñat CHASSEVENT

TALDE PROFESIONALA :

Zuzendaria :.....Pantxo ETCHEGOIN

Kontabilitatea / Idazkaritza :Maddalen ERROTABEHHERE-DUPUY
(astean lau egunez)

Jacqueline INARRA
(otsailaren 4etik martxoaren 27ra
eta maiatzaren 11tik 17ra)

Sail arduradunak :

*** Ondare saila :**

Etnologia - ondarea :.....Terexa LEKUMBERRI (% 94a)

Ahozko ondarea - multimedia erredaktorea:Maite DELIART

*** Mediazioa – Dibulgazio saila**

Komunikazio eta dibulgazio koordinatzaileaJakes LARRE

www.eke.org atariko arduraduna.....Frederik BERRUET

*** Animazio – Ikusgarrigintza saila**

Ikusgarrigintza :.....Frank SUAREZ

Kultura aholkularitza :.....Daniel LANDART (denbora erdiz)

Kultura arartekolaritza :.....Maia ETCHANDY
(2010eko martxoaren 1etik goiti)

Proiektu berezientzat :

“Batekmila, Euskal munduak” erakusketarentzat :

Kattina GOYHENEIX
(uztailaren 29tik agorriaren 20era)

Mendi ESTEBAN
(uztailaren 1etik 31ra)

« Aldaketa baten esperientzia »

Instituzio partaide ezberdinek Euskal kultur erakundearen misio berriak 2009an onartu dituzte.

2010eko egitasmoak lau eginkizun nagusiak berriz hartu ditu :

1. **Politika publikoen finkatzeko laguntza ;**
2. **Politika publikoen programetarako obragintza ;**
3. **Obralaritza programak ;**
4. **Kultura eragileei laguntza.**

Lau kapitulu handi horiei, zeharkako bosgarren bat gehitu behar zaie : EKEk garatu dinamika ezberdinak sustatzen dituen kultura bitartekaritza eta komunikazioarena.

1. *Politika publikoen finkatzeko laguntza*

▣ Hemendik goiti, Euskal kultur erakundeak misio berri bat ukanen du : erreferentziazko solaskidea bilakatuko da erakunde publiko, lurralde elkargo, estatu mailako ala nazioarteko erakundeentzat. Euskal kulturaren aditua eta aholkularia izanen da, ikerketa misioak eramanen ditu edota egitasmoak lagunduko ditu alor horretan.

Horrela, ekintza plano bat finkatua izan da 2010ean EKEren norabide berrien gauzatzeko. Hiru atal desberdinetan banatzen dira :

1 - *André Ladousse jaunaren jarraitze misioa*

Misio horrek EKE lagundu du bere jarrera estrategikoan eta parte-hartze modu berriak finkatzeko (pozedurak, metodoak...), hala nola politika publikoen jarraipenari buruz, euskal kultura gehiago kontutan hartua izan dadin.

Lan berezi bat egin du EKEko lantaldeak jarrera berri hori onar dezan eta horretan inplika dadin. Lan horri esker, jarrera hori iraunkorki finkatuko da, besteak beste ondoko ezaugarriak integratuz :

- EKEren baitan, ezinbesteko aldaketak lan antolaketa mailan eta atazen banaketan (organigramoa) ;
- Gaitasun berri batzuen eskaera eta gaitasun horien lortzeko modalitateak (lanpostu berrirako soslaiaren zehaztea, formakuntza plana...)
- EKEren eta bere partaideen arteko jarraipen/harreman modu baten ahalbideratzeko antolaketa mota (batzorde eragilea, lan taldeak, helburu hitzarmena, etab.).

Misio hori gauzatzen ari da, euskal dantzari buruzkoarekin batera. Lehen ondorioak 2011ko urtarrilan emanen dira.

2 - Claire Rousier anderearen «Euskal Dantza»-ri buruzko misioa

Erakunde partaide ezberdinek EKeri obralarigintzan emandako misio berriak abian emateko, euskal dantzari buruzko ikerketa lan bat egitea eskatua izan zaio.

Ikerketa hori Claire Rousier andereak eraman du (Pariseko « Centre National de la Danse » zentroaren *Memorio eta Ikerketa Zerbitzuaren* zuzendaria), eta elgarrizketentzat EKEko Maia Etchandy-ren laguntza ukan du. Orotara, dantza munduko berrogei bat pertsona elgarrizketatuak izan dira. Ikerketa hori, Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin eramana izan da, bere aldetik, dantza talde gehienetan (baita herriko etxe eta herri elkargoetan) inkesta bat eraman duelako. Ikerlan hori, Patrick Larralde-k du IDB-rentzat eraman eta bildutako estatistikek Rousier anderearen ikerketa aberastu dute.

Ikerlan horren ondorioz, zonbait proposamen atera dira besteak beste, ondarearen bilketan, transmizioan, formakuntza arloan baita ere dantzarako gela egokien beharra agerian utziz. Amaturren lanaren sustengua beharrezkoa dela ere argiki errana izan da.

2011.urtea, bigarren fase batera pasatzeko garaia izanen da: ekintza konkretuak abiatuz.

3 – « Kultura politika publikoen » egitasmo arduradun batendako lan deialdia

Aipaturiko bi misioen ondorioen beha egon gabe, Euskal kultur erakundeko Administrazio Kontseiluak lan deialdia abiatzea erabaki du, berantenez 2011ko urtarrilaren 1ean hasiko den lanpostu horrentzat.

2. *Politika publikoen programetarako obragintza*

▣ **Euskal Herriko ahozko ondarearen bilketa, zainketa eta baloratzea**

Ekintza hau 2007-2013 Lurralde kontratuan sartzen da. Pirinio Atlantiko Kontseilu Orokorrak eta Euskal kultur erakundeak bi urterentzat (2009-2011) hitzarmen bat izenpetua dute eta geroztik Kontseilu Orokorrak obragintza bere gain hartu du, Euskal kultur erakundeak aldiz obralaritza daramalarik. Euskal kultur erakundeak egiten du beraz lekukotasunen bilketa (grabatua eta filmatua), eta ondotik deskribapen dokumentala eta artxiboen tratamendua.

2010ean, 39 inkesta grabatuak izan dira, bi gai hauen inguruan bereziki :

- **Itsas ondarea** Donibane Lohizunen, Ziburun, Hendaian, Getarian eta Aturrin (mariñel ohiak, arrantzaleen emazteak, sare konpontzaileak, ostatu mutilak, arrain handizka saltzaileak, kontserbategietako langileak, Dakar alderako bidaiak, etabar).
- **Oinetakoan eta espartinen** sektore industrialia Hazparnen eta Xiberoan.

Beste urtetan bezala, bidegrabaketak numerizatuak, muntatuak eta sailkatuak izan dira. Horretarako *Excel* sistema baliatua izan da, eta gero, frantsesera itzuli ondoan, Arkhéia progiciel motan ezarriak. Horrek erran nahi baitu Departamenduko Artxiboetan kontsultatzen ahal direla.

Bestalde, Amikuzen bildu lekukotasunekin erakusketa bat egin dugu “Eleketa” deitua. Amikuzeko mediatekan erakutsia izan da 2009ko urte ondarrean eta 2010eko urte hasieran.

Irisarrin bildu lekukotasunak erakutsiak izan dira Xabier Itzaina ikerlariak “Tobera mustrak” gaiaz egin mintzaldian, Har’eman elkarteak antolatua ekainaren 12an.

Grabatuak izan direnak :

- Itsas ondarea : André Izaguirre, Angel Echeveste, Dominique Douat, Dominique Lavillard, Théodore Lasserre, Ramuntxo Barquez, Raphaël Miranda, Rosette Nérou, Fermina Péry, Etienne Berhoague, Annie Irazoqui, Michel Elgart, Kattalin Salha épouse Iribarren, Michel Toral, Joséphine Burguete, Mattin Lafitte, Luxiano Arambarri, Xabier Martiarena, Jean Péry, Léon Mugica, Jean-Baptiste Garat, Beñat Mendiboure et Mikel Arregui, Mikel Epalza, Jean-Baptiste Mourguy, Olivier Azarete.

3 lekukotasun : Benoît Etchegoyhen, Dominique Laxagueborde, Junes Casenave-Harigile.

2 lekukotasun espatingintzari lotuak : Gaxuxa Bouillon, Armand Perez.

2 lekukotasun zapatagintzari lotuak : Gracie et Jean-Pierre Héguy.

1 lekukotasun Itsasuko ondareaz : Pierre Iharour.

6 lekukotasun Baxenabarrez : Daniel Lagourgue, Angel Aintziburu, Ttote Arretche, Maddi Inchauspé, Jakes Casaubon, Joanes Elgue.

Xiberotar kantuen numerisazioa eta tratamendua

Sü Azia elkarteak, 2009an hasirik, Marie Hirigoyen etnomusikologoari esker, lan bat eraman du :

- Elkartearen grabaketak (400 oren) disko gogorrean sartu ditu ;
- Fondo hori numerizatua izan da;
- Sekuentzietan zatitua eta sailkatua;
- Artxibatua izateko gisan, informazio guziak datu base batean sartuak izan dira
- Eskubideen eskuratzeko ere lan bat eginik izan da.

Indexazio eta artxibatze lana, 2010ean, Maddi Oyhénartek segitu du. Egitasmo hau sostengatzen duten partaideak dira : Departamenduko Kontseilu Orokorra, Xiberoko herriarteko sindika eta Euskal kultur erakundea.

▣ « L'Argentine des Basques / Euskaldunen Argentina »

erakusketaren hedapena :

Irisarri Ospitalea - Ondare Hezkuntzarako Zentroarekin partaidetza

Pirinio Atlantiko Kontseilu Orokorra eta Euskal kultur erakundeak « L'Argentine des Basques / Euskaldunen Argentina » aurkeztu dute Ospitalea - Ondare Hezkuntzarako Zentroan, ekainetik azaro ondar arte.

Animazio asko antolatuak izan dira, eta batzuentzat, Ospitalea eta EKE partzuer ziren:

1 – Bigarren erakusketa bat ezarria izan da, Kepa Etchandy argazkilariak egina : “L'héritage des Amerikaniak”. Biarritzeko mediatekatik landa, Ospilean egon da abuztutik azaro ondar arte.

2 – Bi ekitaldi inprobisaketaren inguruan :

- Irailaren 29an, erakusketaren bisita gidatua eta argentinar afaria Aflacoba elkartearekin; “Kulturarteko bertso bira” filmaren proiektioa (Brasil, Argentina eta Uruguayko inprobisatzaileen ezagutza), ondotik, saio bat Paia bertsolari anaiekin eta Wilson Saliweczyk (argentinar payador bat), Lanku eta Eihartzea partaide.

- Urriaren 30ean, larunbatez, Pedro-Mari Otaño omendua. Sortzez Zizurkildarra, Argentinara joan zen. Haren herioatzaren mendeurrena kari, Xabier Amurizak eta Angel Mari Peñagarikanok Otañoen 75 bertsu kantatu eta deklamatu dituzte, atzerriko oroi-mina gaiaren inguruan.

▣ Bankako meategiak

Azken urte hauetan, Bankako Herriko Etxea eta elkarte batzu seriozki gogoetatzen ari dira Bankako meategiak nola berriz “biziaraz”. Garazi-Baigorriko herri elkargoak proiektu horri bere laguntza eman nahi dio, eginkortasuna eta programazioa ikerketa lan bat abiaraziz. Euskal kultur erakundeak parte hartzen du ikerketa hori segitzen dutenen taldean. Bere aldetik, jadanik, Oiartzungo meategien bisita bat antolatu du, bertako hautetsiekin bilkura bat eginez.

▣ Ahetzeko latsarriaren zaharberritzea

Herriko latsarria edo iturria zaharberritu nahian, Ahetzeko Herriko Etxeak, 2008an, xantier berezi bat abiarazia zuen formakuntza moduan, partaide hauen laguntzarekin : Euskal Gazteen Etorkizunari buruzko Tokiko Misioa (mandatzailea), Akitaniako Kontseilua, Departamenduko Kontseilua (diruztatzaileak), Etxarriko Formakuntza Zentroa, eraikuntza Ofizioetako Angeluko Lankideen Federazioa eta Euskal kultur erakundea (hiruak formatzaile gisa). Xantiera, 2009ko irailan hasirik, 2010eko maiatzaren hasieran amaitu da. Euskal kultur erakundeak ondarearen balioa zer den erakatsi die argin eta zurgin gazteei, latsarria baliatu zuten adineko pertsonekin eta lehen mailako ikasleekin harremanetan jarriz, halaber Ahetze herriko eta inguruko ondarea hobeki ezagutuz.

Latsarriaren estreinaldia 2010ko maiatzaren 7an iragan zen.

Ahetzeko latsarriari dagokionez, EKEk hitza hartu du, beste partaideekin batera, Akitaniako Kontseiluak antolatu “Formakuntza profesionaletik enplegu baten ukaitera” mintzaldian (Biarritzeko lizeo batean iragan dena, 2010ko azaroaren 16an). Lurraldeak kudeatzen dituen formakuntza moten artean, egitasmo horri zer-nolako partaidetza ekarri dion azaldu du.

▣ Jose Miguel Barandiaran antropologoaren

Bosquejo etnografico de Sara ikerketaren itzulpena

Españolez idatzia zen balio handiko ikerketa etnografiko horren euskarazko eta frantsesezko itzulpenak eginak izan dira (Kattalin Totorika frantsesezko bertsoarentzat - Jesus eta Jon Aizpurua euskarazko itzulpenarentzat).

Liburuak, 2011ko Sarako Biltzar kari, Bazko astelehenez, plazaratuko dira.

EKEko Terexa Lekumberri etnologoaren inguruan, egitasmo gotor horren kudeatzen lagundu dutenak dira : Xabier Elosegi, Frantxua Michelena, Erramun Bachoc.

Proiektu honen partaideak : Euskal kultur erakundea, Barandiaran fundazioa eta Sarako herriko etxea.

▣ Formakuntza / hezkuntza / Euskal ondare batzorde iraunkorra

Seaskako irakasle gazteentzat formazioa

Ikastolen federazioak galdaturik, Euskal kultur erakundeak bi egun erdi formazio eskaini dizkie irakasle gazteei. Lehen ikastaldiaren gaia: ondarea orokorrean. Bigarrenarena : euskal arkitekturaz.

Ondare hezkuntza Seaskako kolejioko ikasleentzat

Euskal kultur erakundeak parte hartu du 2010ko abenduaren 7an, mota askotako egitasmo baten barnean, 5.eko hiru klaseetako ikasleei “Euskal etxeetaz” mintzatzen. Txosten pedagogiko bat emana izan zaie.

Euskal Ondare batzorde iraunkorra : koordinaketa eta ordezkaritza

Euskal kultur erakundeak Ondareaz eta etnologiaz arduratzen den Terexa Lekunberrik segitu du « Euskal ondare batzorde iraunkorra » deitu bilkurak animatzen.

Batzorde horren izenean, berak edota batzordeko beste presuna batzuek Akitaniako edo Departamenduko egitura batzuetako batzordeetan parte hartu dute : Ondarearen eta ederguneen lurraldeko batzordean, Baliozko gauzen departamenduko batzordean, CAUE-ko administrazio kontseiluan.

Euskal kultura herrietan sostengatu

Bidart : « Euskal bide arteak »

Bidarteko herriak Euskal kultur erakundearekin partaidetzan, Euskal Bide Arteak deitu euskal kulturaren laugarren edizioa aurkeztu du apirilaren 9an eta 10ean. Tokiko belaunaldi guziendako animazioak eta ikuskizunak sartuak izan dira egitarauan.

Egitaraua :

- Apirilaren 9an, Elirale konpainiaren "**Otto**" ikusgarria.

« **Ttikia ta handia** » txalapartalariek eskaini zuten animazio bat, Panpi Olaizola mendizaleak euskal mendiei buruz eskaini du hitzaldi ilustratu bat. Egunaren bukatzeko "**Salda badago**" euskal rockaren hastapenei buruzko filma emana izan da, Eriz Zapirain film egilearen presentziarekin.
- Apirilaren 10ean, **Kulki** elkarteak hurrei proposatu itsasturien jokoak izan dira. "Euskal bide arteak" edizioa **Pier-Pol Berzaitz** kantari eta konpositorearen kontzertu batekin amaitu da.

Baiona – ekitaldi kulturala Euskal Erakustokian

Euskal museoan

Uztailaren 13a, asteartea : Barkoxeko *Xahakoa* pastoralari buruzko mintzaldia eta kantatuak.

Hizlariak : P. Queheille. Kantariak : J.-F. Lechardoy, J.-N. Pinque, J.-M. Haritchabalet eta L. Larraus.

Baionako bestetan kontzertu Atipikoak

Euskal kultur erakundeak eta Baionako herriak izenpetu duen hitzarmenaren kariatara, Baionako bestetan kontzertuak antolatuak izan dira ez usuzko lekuetan. EKEk proposaturik, euskal artistak toki atipikoetan eta kontzertu handi batentzat ari izan dira :

- Uztailaren 30a, ostiralez : San Espirituko « Collégiale » elizan: Pluton bikotea : Andoni Aguirre (pianoa) eta Kristi Gjezi (biolina)
- Uztailaren 30a, ostiralez : Errepublika plazan : Kontzertu handia : Pierre Haira gaita, perkusioak eta esku soinuaren inguruan ; Bostgehio emazte gazte taldea eta Otxalde taldea.
- Uztailaren 31a, larunbatez : protestanteen elizan : Maddi Oihenart (kantua) eta Julie Läderach (biolontxelo)
- Abuztuaren 1a, igandea : Sinagogan : Hegoaldeko bi gazte koroen kontzertua : Tolosako Hodeiertz koroa eta Ordiziako Oroith koroa.

Biarritz : ekitaldi kulturalak mediatekan

Mediatekaren zerbitzu guziek hilabete bakoitzarentzat gai bat hautatzen dute eta EKEk proposatzen dituen ekitaldiek hilabeteko gaiari lotuak izan behar dute (Mediatekaren Euskal fondoaren zerbitzuarekin elkarlanean). Uztaileko gaia aldiz, osoki Euskal Fondoaren esku da. Datak, Irakurketa Klubaren elkarretaratzeen arabera finkatuak dira.

- Urtarrilaren 23a, larunbata : Mintzaldia euskaraz Xabier Amurizarekin: « Olatu bat kuartelen gainetik » bere liburuz ,
- Maiatzaren 25a, larunbata : Mintzaldia euskaraz, bat-bateko itzulpenarekin frantsesera, Jon Sudupe, Donibane Lohizuneko baratzezain botanikoa animatzaile (Itsasertzeko Paul Jovet baratze botanikoaren Adixkideak). « Baratzeak, atzo, gaur eta bihar »,
- Biarritzeko mediatekak eta Euskal kultur erakundeak uztail hilabete osoan, Euskaldunen atzerriratzeari buruzko erakusketa bat eta topaketak proposatu dituzte :
 - Uztailaren 1etik 31a arte, Kepa Etchandy argazkilariaren erakusketa bi gaiei buruz : « Euskaldunak Argentinan » eta « Amerikanoen Jaraunspena » (Bigarren erakusketa horren ekoizpena Irisarriko Ondare Heziketa Zentroarekin eginga izan da),
 - Uztailaren 1a, ostegunarekin,): Topaketa iruditan Kepa Etchandy argazkilariarekin. Erakusketaren estreinaldia,
 - Uztailaren 10a, larunbatarekin : « *Euskal-Argentina* » elkartearen aurkezpena (bere helburuak, ekintzak eta bereziki Guillaume Apeça atzerriratze agentearen artxiboen inguruan egindako lana). Horrez gain, emigranteen gutun eta familia istorio batzu irakurriak izanen dira (Annie Sabarots, Monika Legarto eta Margita Mathieuren eskutik).

- Uztailaren 22a, ostegunarekin: « Sor lekua utziz geroz » bideo dokumentalaren aurkezpena. Mikel Erramouspek Wyoming eskualdean zehar bere aitarekin artzain ibilbidea berriz egiten du, aitaren oroitzapenen aztarnetan. Pierre Erramousperen lekukotasunaren ondotik, Argitxu Camus Etchecopar-en mintzaldia : « Euskaldunak Estatu Batuetan eta haien nortasuna » (bi hizkuntzetan).

Hendaia – Abbadiako jauregia

« Kaperan A Kapela » zikloa

Euskal kultur erakundeak, Hendaiaiko herriarekilako eta Zientzien akademiako Antoine d’Abbadie fundazioarekilako partaidetza segitu du aurten ere (berritasuna : iraileko kontzertua Herlaitzaren bestarekin lotu dugu. Aurten, Herlaitzaren besta Kontseilu Orokorrak eta Hendaiaiko herriak antolatzen zuten).

- Apirilaren 17a, larunbata : Jean-Michel Bedaxagar eta Michel Arotçe,
Lehen partean : Gorka eta Eider Zabaleta,
- Maiatzaren 22a, larunbata : Xabi San Sebastian,
- Irailaren 25a, larunbata (Herlaitzaren besta): Maddi Zubeldia eta bere musikariak,
- Urriaren 16a, larunbata : Maurice Ravel kontserbatorioarekin partaidetzan antolatu gaualdia : « Atout Chœur » koro festibala kari: *Orchestre Régional Bayonne Côte Basque* koro mistoaren hamabi emazteen kontzertua. Ondotik, Beñat Achiaryren ohizko musika klasearen ikasleak ari izan dira.

Saint-Jean-de-Luz : « Euskal kultura argitan »

Donibane Lohizuneko Kultura Zerbitzuak eta EKEk martxoan, ekitaldi andana bat antolatu dute « Emazteak ohoretan Donibane Lohizunen » gaiaren inguruan :

- Martxoaren 1ean : Emaztearen irudia euskal margolaritzan. Mintzalaria : Jean-François Larralde, arte historialaria
- Martxoaren 5ean, Kantaldia : Amaia Riouspeyrous (Rock & Folk)
- Martxoaren 6etik apirilaren 11a arte – La Rotonde : Erakusketa : “Errealitatearen tindatzea” (Zoé Brayren margoak)
- Martxoaren 13an, « Emaztea margolari » Jean-François Larralde bisitaren kudeatzaile
- Martxoaren 9an, Portuko Erretegian: Béatrice Elissalde anderearen lekukotasuna (Donibane Lohizuneko emazte itsasuntzi-jabe honek itsasoaren deia nola entzun duen aipatu digu)

- Martxoaren 11an, Ravel aretoan, mintzaldia “Euskal Herrian, emaztea legez gizonaren pare zen”. Hizlaria : Maite Lafourcade, irakasle emerittoa
« Madeleine de Jaureguiberry anderearen ekintzak, Donibane Lohizunen, 1930 urte haietan ». Hizlaria : Jean-Claude Larronde, zuzenbidean doktorea
- Martxoaren 18an, Herriko Etxean : Mintzaldia euskaraz “Emazteak Euskal Herrian”. Hizlaria : Marikita Tambourin, etnologoa eta idazlea
- Martxoaren 20ean – Baratze botanikoan 11:00etan : « Emazteak eta landareak » (euskaraz) - 15:00etan : « Femmes et plantes » (frantsesez). Landare baliagarrien ezagutza, emazteen arta moldeak, landare miragarriak eta afrodisiakoak.

Donapaleu : ekitaldiak Amikuzeko mediatekan

Euskal kultur erakundeak eta Zabalik elkarteak partaidetza segitu dute eta euskarazko ekitaldiak proposatu dituzte :

- Apirilaren 3a, larunbata : idazle aurkezpena : Eñaut Etxamendi, *Gilentegiko Gilen* bere liburua aurkezten,
- Ekainaren 19a, larunbata : idazle aurkezpena : Beatrice Urruspil-ekin solasaldia, *Gizaki Bakartiak* bere liburua aurkezteko (Gazteluma 2009 saria eskuratu zuen),
- Uztailaren 28tik irailaren 3a arte : *Euskal Herriko baserriak* argazki erakusketa,
- Azaroaren 13a, larunbata: « *Hau dela, hori dela* » ipuin antzeztuak Eleka konpainiaren eskutik.

Mugazgaineko harremanak indartu

Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren eta Euskal kultur erakundearen arteko urteaskotarako hitzarmenaren barnean

Eusko Jaurlaritzak bere Kultura Departamenduaren bidez sostengatzen ditu mugazgaineko kultura trukaketak. Ekitaldi hauei gehitu behar dira « Batekmila : Euskal munduak » erakusketa egon den hirietan antolatuak izan direnak.

Getxo

« Iparra galdu gabe » kulturaldia

Euskal kultur erakundeak, hamar urte hauetan, harreman jarraikiak dauzka Bizkaiko Getxo hiriarekin eta bi urtetarik behin antolatzen dute **“Iparra galdu gabe”** kulturaldia. Getxon, argazki festibala erraldoia antolatzen baitute, 2010eko kulturaldiaren berezitasuna hori izan da: Getxofoto elkarteak, Getxo Hiriak eta Euskal kultur erakundeak erakusketa bat ekoiztu dutela, **“Herri ixilean”** deitua. Argazkilaria, Jon Cazenave donostiar gaztea da, eta bere izena aitzakiatzat hartuz, iparraldean gaindi ibili da **“Cazenave”**-tarren ondotik (Junes Cazenave, pastorgilea; Baionako Casenave Txokolate saltegia eta beste). Argazkiak zuri eta beltzez dira. 2011. urtean, erakusketa Euskal Herri osoan ibilarazteko asmoa dugu (Koldo Mitxelena kulturunean apirilan, Biarritzeko mediatekan uztailan...)

Hona egitaraua zein zen :

- **Urriaren 14ean, ostegunez,** « Herri ixilean » erakusketaren estreinaldia. Argazkilaria : Jon Casenave.
- **Urriaren 17an, igandez,** Egun osoan : Mendi ibilaldia : Atxuriaren itzulia. Panpi Olaizola eta Charles Iralour gidari (Getxotarrak autobusez etorraziz Sarara).
- **Urriaren 19an, asteartez,** Haurrak pilotan ari izan dira Sebastien Gonzalez pilotari txapelduna entrenatzaile.
- **Urriaren 21ean, ostegunez,** « Herri ixilean » erakusketaren bisita gidatua, Jon Cazenave argazkilariarekin.
- **Urriaren 22an, ostiralez**
 - Baionako «Casenave » txokolatearen aurkezpena eta dastaketa;
 - Anje Duhalde kantariak Daniel Landartek idatzitako letrak kantatuko ditu.
 - Kalez-kale : Uztaritzeko Txaranga. (Dotzena bat musikari).
 - Kantu afaria, *Holako* hirukoteak alaiturik.
- **Urriaren 28an – Ikastetxeetan**
“Iparraldea XXI” dokumentalaren aurkezpena.
Pantxoa Etchegoin hizlari, Amets Arzallus bertso kantari.
- **Azaroaren 4ean, ostegunez,** Umorea eta marrazkia: Peio Etchecopar eta Asisko Urmeneta (Beste Aldekoak).
- **Azaroaren 5ean, ostiralez,**
Trinketeko pilota jaialdia. Binaka : Waltari eta Inhar Ugarte, Etxeto eta Gordonen kontra. Buruz-buru : Mikel Gonzalez, Rober Uriarteren kontra.
- **Azaroaren 7an, igandez,** 11:30an eta 12:30an: **“Otto”** haurrentzako ikuskizuna bi aldiz emana izan da, Elirale konpainiaren eskutik.

Donostia - Koldo Mitxelena kulturunea

« Iparraldea Bertan ! » zikloa

- Martxoaren 3a, asteazkena : “Etxahun-Iruri kantuegilearen omenez” (kantariak : Mixel Arotçe, Jean-Mixel Bedaxagar, Pierpol Berzaitz eta Mixel Etxekopar),
- Martxoaren 10a, asteazkena : Eñaut Etxamendi-ren hitzaldi-kantaldia,
- Martxoaren 17a, asteazkena : Mihakan bikotearen kantaldia : Pantxix Bidart eta Kristof Hiriart,
- Martxoaren 24a, asteazkena : Ipuinaldia (estreina): « Hau dela, hori dela » ipuin antzeztu emanaldia Eleka konpainiaren eskutik (Jokin Irungaray eta Kattalin Sallaberry).

Gernika – Maison de la culture

« Iparraldea gero eta hurbilago »

Martxoaren 18tik apirilaren 7ra : Christiane Giraud zizelkariaren erakusketa.

Durangoko 45. Euskal liburu eta diskoaren azoka

Laugarren urtea da Gerediaga elkarteak (azokaren antolatzailea), Plateruena Kafe antzokiak eta EKEk partaidetza bera eramaten dutela. Aurten, Ahotsenea elkartearekin ere (Ahotsenea Sortzaileen Gunearen antolatzailea da, oso arrakastatsua) lotu egin da partaidetza bat.

Iparraldeko ekoizpenak musikagintzan eta literaturagintzan ezagutaraztea da partaidetzaren helburua eta horrela lortu izan dira :

-Iparraldeko disketxeek eta argitaletxeek parte harturik (Agorila, ZTK, Maiatz, Gatuzain, Elkar, Ikas, Euskaltzaleen Biltzarra) ;

- Iparralde gune bat sorturik publikoaz orain ezaguna eta identifikatua ;

- berritasunen aurkezpenak antolaturik erran nahi baita hamabost bat liburu aurkezpen (9) eta kontzertu (6) Plateruena Kafe antzokian, Ahotsenea Sortzaileen gunean eta Azokako aurkezpen aretoan.

-komunikazioa plan garrantzitsu bat plantan ezarririk (prentsaurreko, www.durango.eke.org web gunearen sortzea, mailing kanpainak...).

Partaideak : Gerediaga elkarteak - Plateruena kafe antzokia – Ahotsenea elkarteak

Lankidetza hitzarmena

Donostia Hiriko Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoarekin

2010eko maiatzaren 20an izenpetu Lankidetza hitzarmenak Euskal Kultur Erakundearen (EKE) eta Donostia Kulturaren arteko ohiko eta legezko harremanak bultzatu ditu.

EKEren jakitunean oinarrituz, Donostia Kultura egiturakiparraldeko artisten ezagutza haunditu nahi du Donostiako hirian. Hau da, Lankidetza hitzarmenak eragin dituen ekitaldiak :

“Literaktum” Letren eta lengoaien festaren seigarren edizioan ondoko 3 ekitaldiak programatzea:

Erakusketa: Ikuspegi goxoak /Paisajes íntimos, Gabrielle Duplantier & Bernardo Atxaga. Maiatzak 6 – ekainak 4 Lugaritz Kultur Etxean.

Erakusketa honek bi artisten sorlekua du oinarri : Euskal Herria. Eta bi adierazpen artistikoren arteko elkarlanetik sortua da, argazkigintza eta olerkigintza. Bernardo Atxaga idazlearen *Poemas y Híbridos* (Madril, 1990) bildumatik ateratako olerkiak eta Gabrielle Duplantier argazkilariaren irudi fantasmagorikoak elkarren ondoan, bat eginez.

Partaideak : Donostia Kultura – Lugaritz Kultur etxea

Ikusentzuneko jarduera: Sormen performance, Beñat Achiary, Philippe De Ezkurra eta Pierre Vissler. Maiatzaren 28an Lugaritz Kultur Etxean.

Gabrielle Duplantier argazkilariak proiektatutako irudiekin batera, Beñat Achiary kantariak eta Philippe De Ezkurra soinu-joleak, Pierre Vissler-ek asmatutako ingurumen elektro-akustiko batek lagundurik, “*Ikuspegi goxoak*” erakusketaren interpretazio garaikidea eta poetikoa eskaini dute performance batean publiko zabala eta oso interesatu baten aurrean. Ustez bainan askoz gehaigoko jendea bildu da proposamen garaikide eta berezi hortarako.

Partaideak : Donostia Kultura – Lugaritz Kultur etxea

Poesia Urumea bazterrean. Itxaro Borda

Itxaro Borda, Lara López eta José Oliver-ekin batera aritu da poesia errezitaldian. Maiatzak 29 Bernategi baserrian (Loiola: kartzelaren atzekaldean).

Partaideak : Donostia Kultura – Lugaritz Kultur etxea

Abesbatzen zikloa

Oldarra abesbatzaren kontzertua

Gros auzoko Corazon de Maria elizan 2011ko urriaren 29an gertatu da kontzertua. Donostia Kulturak antolatutako Abesbatzen zikloaren programazioan sarturik, publiko zabala hurbildu da emanaldira.

Partaideak : Donostia Kultura

Maddi Oihenart eta Jeremi Garat kontzertua

2010eko abenduaren 17an, Maddi Oihenart eta Jeremi Garat xiberotarren emanaldia publikoa poztu egin du Alzako Kultur etxeke gelan.

Partaideak : Donostia Kultura – Alzako Kultur etxea

« Salda badago » dokumentalaren hedapena

Orio Produkzioak eoiztetxearekin partaidetzan, EKEk egitura eta elkarteeri dokumentala erakustea proposatu eta errestu die. Honela, Eriz Zapirain film egilearen Salda Badago Euskal rockaren hastapenak » dokumentala hedatua izan da ondoko tokietan :

- Baionako Etxepare lizeoan 1. eta terminaleko ikasleeri (maiatza);
- Iparraldeko konpilazioaren disko aurkezpen batean (Hendaia, Kanttu ostatua, urria);
- 15. EHZ festibalean (Heleta, uztaila);
- Bidarteko 3.Euskal bide Arteak festibalean (apirila);
- Brest-eko 9.Irudi Alternatiboaren Festibal Intergalaktikoan (urrian)
- Lanetik Egina elkarteak antolaturiko gauldi batean (Hendaia, azaroan)
- Baigorriko ikastolaren gauldi batean (azaroan)

Gehienetan, film egilearen presentziarekin topaketak antolatuak izan dira. Ondorio baikorrak ateratzen dira ekintza hortatik eta dokumentalaren hedapena aurrera doa aurten ere.

Euskal gauldia Molière Scène d’Aquitaine aretoan

Gaurko musika sorkuntzeri buruzko 4. edizioa abenduaren 3an iraun da bi diskoen aurkezpen :

- Maddi Oihenart eta Juantxo Zeberioaren « Baldi » lanarekin (NO CD Rekords);
- Garikoitz Mendizabal txistulariaren “Bihurrikeritan” diskoarekin.

Publiko dexente nahiz eta aurreko urtean bainan guttiago. Biltzen den jende gehiena Bordaleko euskaldunak dira eta musikagintzako professional oso gutti, nahi bezala. OARA-rekin hurrengo partaidetzari professional gehiago biltzea izanen da Akitanian hedapena laguntzeko eta zabaltzeko. Kalitatearen aldetik, publikoa loreatu da eta kontzertu batzu aurreikusiak dira udarako.

Partaideak : OARA – Akitaniako eskualdea.

Urriaren 8 eta 9 an : Mahain ingurua :
« Kultura tradizionalak eta erakunde publikoak :
ohizko dantza eta musiken lekua Kontserbatorioan »

Euskal kultur erakundak bultzaturik, Maurice Ravel Kontserbatorioaren partaidetzarekin antolaturik, bi egun hauetan, gogoeta bat eramana izan da « ohizko dantza eta musiken lekua Kontserbatorioan » gaiaren inguruan.

Lurraldeko kultura munduko hainbat presonek parte hartu dute solasaldi honetan. Hasiera batean, gogoeta Kontserbatorioko erakasleekin eramana izan da : besteak beste, Phillipe de Ezcurra, Elisabeth Lecussant, Agnès Rospidegaray, Beñat Achiary... baita federakuntza edo/ta erakunde batzuekin : Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (IDB), FAMDT, CEFEDEM...

Ondotik, topaketa-eztabaida elkarteei idekia izan da (Abotia, IDB, Herri Soinu ...). Horrez gain, Anne-Marie Granié soziologo ospetsuak, solasaldi hori aberastu du « Kultura eta lurralde garapena : «nortasun kolektiboaren oinarriari buruzko gogoetak » ikerlan gaia aurkeztuz.

Euskal kultur erakundearen parte hartzea, Baionako euskal museoko orientazio kontseiluan

“Euskal Herria Lurralde Marka”
Kultura eragileek parte hartzen dute
sektore askotako araudi baten idazketan

« Lurralde kontratuari datxikola, Departamenduko kontseilu orokorrak eta Aktitaniako Lurraldeko kontseiluak Euskal Herriko Garapen kontseiluari galdegiten diote Lurralde Marka bat behar-ordukoa eta egingarria denez ikertzeko, eta hori, Euskal Herria 2020 egitasmoaren barnean. Helburu nagusitzat dauka : Euskal Herriko ekoizpenak eta lurraldearen irudia zaintzeko halabeharra, egoera lehiakor azkar batean, eta logika oldarkorrago batean ezartzea”.

“Balore sendoetan finkatu bere berezitasunean baieztatua delakoz, Euskal Herriak irudi indartsu bat dauka, berdingabea dena. Lurraldearentzat izenpetuz, araudiak Euskal Herriko kulturen eta nortasunean bermatu behar du, argiki antzemnak bai eta hemen berean, bai kanpoan”.

Pabeko goi mailako komertzio eskolan, kantu koruen alde sozialaren aipamena, Euskal kultur erakundearen eskutik

3. Obralaritza programak

- “Batekmila-Euskal Munduak” erakusketaren inguruko animazioak eta bitartekaritza

2010ean, “Batekmila-Euskal Munduak” erakusketa interaktiboa hiru aldiz aurkeztua izan da :

Ambarès & Lagrave – 2010eko otsailaren 1etik 13ra – « Pôle Culturel Evasion » kultura gela

Partaidea : Pôle culturel Evasion

Bartzelona – 2010eko martxoaren 18tik apirilaren 14ra – Bartzelonako Unibertsitate Publikoa

Partaidea : Bartzelonako Euskal Etxea eta Linguamón hizkuntzen etxea

Oharra : Bartzelonako aurkezpenarentzat, eduki guziak (testuak, bideoak, aplikazio interaktiboak...) katalanera itzuliak izan dira.

Parise – 2010eko uztailaren 16tik abuztuaren 20ra – 17. barrutiko Herriko Etxea

Partaideak : Pariseko Euskal Etxea eta 17. barrutiko Herriko Etxea.

Erakusketa ezarria izan den aldiro, animazioak eta kontzertuak antolatuak izan dira :

Ambarès & Lagrave

- “Itsasoa” koruaren kontzertua, otsailaren 6an, 20:30etan, Ambarès-eko elizan
- Kiki Bordatxo-ren animazioa otsailaren 12an, Pôle Evasion aretoan

Bartzelona

- 2010eko martxoaren 18an, 18:30etan : Bartzelonako Unibertsitatearen eraikin historikoaren sartzean
Erakusketaren estreinaldia Amaia Riouspeyrous eta Gorka Knörr kantariekin.
- “Batekmila-Euskal Munduak” erakusketaren aurkezpena Bartzelonako Euskal Etxeak antolatu “Literaldia” euskal literatur garaikidearen 6. Festibalaren kariatara antolatua izan da.

Paris

- **Uztailaren 16a**, Anaiki koruaren kontzertua.
- **Uztailaren 18a**, Batignolles-eko merkatuaren animazioa, “Biper Neskak” emazte taldearen kantu eta musikarekin
- **Uztailaren 23a**, euskal dantzak Patxi eta konpainia taldearekin
- **Uztailaren 27 eta 28a**, euskal ipuinen inguruko animazioa tokiko aisialdi zentroko haurrekin
- **Abuztuaren 6a**, Pantxoa Etchegoin, Euskal kultur erakundeko zuzendariaren mintzaldia euskal kantuz

- **Abuztuaren 18a**, Maddi Oihenart eta Jérémy Garat-en kontzertua.

➤ Hezkuntza artistikoa eta kulturala eskola munduan

Eskulako eskola publiakoa. Haur kopurua : 24.

Artista hauen parte hartzearekin : Pierre Vissler eta Michel Etchecopar.

« **Behin bazen Eskiula** » proiektua ereman du eskolak. Kantua, istorioak eta beste. Disko bat ekoiztua izan da haurren lanarekin eta Paola Couchinave, Laure Casteig et Brien Cobra-Branco erakasleen laguntzarekin.

➤ Jazz' in College

“**Mikel Laboa gogoan**”, “Jazz in Collège” saileko kontzertua ekainaren 11an Baigorriin.

Parte-hartzaileak : Baigorriko Jean Pujo, Hendaiaiko Irandatz, Donibane-Garaziko La Citadelle eta Nafarroako Lekarozko kolegioak. Orotara, 200 bat ikasle kantari.

Musika moldaketak : José San Miguel. Proiektuaren koordinatzailea : Denise Olhagarai.

➤ Diskografiarentzat laguntza

Bi elkarte lagundu ditugu beren diskoen promozioan :

- « **Ekialdetik** », Hebentik elkarteak.
Diskoan parte hartu duten artistak : Mixel Etxekopar, Peio Cachenaute, Jérémy Garat et Jean-Charles Sans, baita Amaren Alabak taldea.
- « **Kalakan** », ZTK elkarteak
Paxkal Indo, Thierry Biscary, Jamixel Bereau

Bestalde, euskal diskografiari buruzko bi biltzarre segitu ditu Euskal kultur erakundeak, Akitania lurraldea eta FEPPA organismoekin batera.

4. Kultura eragileei laguntza

Ondarea

Euskal kulturaren heziketa

Ikas

Kultur animazioak Xiberuan

- Xiru festibalean parte hartzea. 90 ikaslek kantu, dantza, olerki eta antzerkiari sentsibilizatuak izan dira Ander Lipus eta Bernard Combi-rekin,
- Ibilaldi literarioak Barkoxen otsailaren 2an eta Urdiñarben martxoaren 15ean (57 hurren parte hartzea),
- Ekainaren 1ean Barkoxen, Barkoxeko haurrek “Beñat pastoralara” eman dute, Xiberoko 200 hurren aitzinean.
- Eguberri kari, 200 bat haur Sohütako, Barkoxeko, Mauleko, Atarratzeko, Urdiñarbeko eta Idauze Mendiko eskoletatik.

Les Amis du Jardin Botanique / Donibane lohizune

- « Eco-citoyens, Eco-citoyennes » erakusketaren euskarazko bertsioa lekuko ingurumenaren arazoeri buruz, Donibane Lohizuneko Duconténia gelan.
- Animazioak eta bisita gidatuak Jon Suduperekin.
- Donibane Lohizuneko baratzean performantza :
Mixel Etxekopar (musika, kantua, soinua) eta Pierre Vissler (pailazoa, soinua) xiberutarrek, aldi berean landare bilduma aparta eta pedagogia tokia den baratze horretan, ibilaldi poetikoa asmatu dute, musika, kantua, olerkia, antzerkia eta soinudun instalazioak uztartuz xoko zoragarri horren (ber)deskubritzeko. Aukera aparta izan da urriaren 9 huntan publiko jendetsuarentzat (antolatzaileek pentsatu baino hiru aldiz gehio jende bildu baita !) nahiz eta txiri –miri pean egonik.

Iparralai

Dantza eta kantu taillerak Donibane-Garazin 17 Baxenabarreko herrietako 50 bat haurrentzat (6 et 11 urte artekoak). Erakaskuntza euskaraz.

Erakasleak : Denise Olhagaray.

Mugazgandiko harremanak bultzatu kantaldi eta ikusgarri batzu hegoaldeko elkarteekin antolatuz.

Aldudarrak batasuna

« **Imanol kantatuz** » **kontzertua urriaren 31ean Alduden, kantari hauekin** : Kattalin Indaburu, Kantiruki, Mathilde Etchebarren, Maddi Zubeldia, Aurélie Etchepare eta Thierry Biscary, Amaia Riouspeyrous, Lauburu, Astezkenekoak, Maitena Monaco, Magali Zubillaga, Xendari ahizpak, Leire Uhalde eta Maider Lerissa, Izarrak, Maider Zigarroa eta Brave anaiak, Miren Tristant eta Guy Saldubehere.

Musikariak eta zuzendaritza artistikoa : Nicolas Vielle : pianoa, Sebastien Luc : gitarra, Sébastien Desgrans : esku soinua.

Association pour la sauvegarde du navire Patchiku

Ekintza desberdinak « Patchiku » itsas-Ontziaren inguruan :

Untziaren arraberritzea,

Bisita gidatuak eskola eta elkarteentzat,

Muntaketa eta desmuntakatari buruzko komunikazio gastuak (itsas-untzi begiratua)

Memorio kolektiboa

● Zabalik

« Otsail ostegunak » deitu saileko mintzaldiak – Otsailaren 4etik 25era Donapaleun :

- Otsailaren 4ean : « Estatu Batuetako Euskaldunak eta euskal nortasuna »
Atlantikoaz bestalde, zerk egiten ditu euskaldun...
Mintzalaria: Argitxu Camus Etxekopar, ikerle gaztea
- Otsailaren 11an : « Gaurko kultura, turismoa ote ? »
Mintzalaria: Kepa Fernandez de Larrinoa, antropologoa
- Otsailaren 18an : Hego Ameriketako itzuli baten kronika Iparraldeko bi gazteren bidaiaz. Mintzalaria: Elorri Larzabal eta Paxkal Teilagorri, bidaiantak
- Otsailaren 25ean : Norentzat eta nola idatzi gaur euskaraz ?
Euskal sistema literarioaren mugak eta idazleen estrategiak
Mintzalaria: Ur Apalategi, idazle eta unibertsitaria

● Oxtikenekoak

« Kantu xaharraren eguna » ekitaldia, Senperen urriaren 10ean.

● Bardozako gaztetxea

Udako arte erakusketa, ekainaren 19tik uztailaren 4era Bardozen : « Regards croisés » Chantal Sore eta Jana Lottenburger artistekin.

● Azkaingo turismo bulegoa

« Pastore lore » ekitaldiaren antolaketa : Azkainen, urriaren 9 eta 10ean : animazio kulturalak, dantzak Azkaineko Ikasleak eta Lekorneko Urtsuko xoriak, « Gogotik » taldearen kantaldia, erakusketak...

● Etxahun - Barkoxe

Ekintza desberdinak pastoralaren inguruan :

- Ekainaren 4ean, Jean-Claude Larronde-kin mintzaldia « Euskaldunak eta Gürs-eko kanpamendua »,
- Ekainaren 19an, Gürs kanpamenduaren bisita,
- Uztailaren 13an Baionako euskal museoan : “Pastoralaren giltzak”, Euskal kultur erakundeak antolatu mintzaldia, Baionako euskal museoaren partaidetzarekin. Hizlariak eta kantariak : Patrick Queheille, Jean-Fabien Lechardoy, Jean-Noël Pinque, Jean-Marie Haritchabalet, Lucien Larraus.

● Ur begi

« Zeruko izarren bidea, nik banaki ! » : Agorrilaren 28an eta 29an, Uztaritze, Jatsu eta Milafranga herrietan gaindi ibilaldiak, artista desberdinekin : Xan Errotabehere, Marie Telletchea, Andoni Aguirre, Lucien Alfonso, Uztaritzeko gaiteroak. Konposteleko bideeri buruzko erakusketa bat Heraitzeko kaperan Uztaritzen, irailaren 8tik 19ra.

● Sü azia

Sü azia elkartearen artxibo soinudunen numerisazio lana eta sailkapena, Maddi Oihenart-en laguntzarekin.

Sorkuntza

❖ SORKUNTZA ARTISTIKOAK

Les Chimères / Pok Produksioak : « *Osaba Vania* »

« **Osaba Vania** », Anton Tchekov-en obraren sorkuntzarentzat laguntza. Txomin Heguy-k euskarara itzulia.

Zuzendaritza eta moldakuntza lana : Jean-Marie Broucaret.

8 jokolariek (Dominique Dauge-Marty, Txomin Heguy, Gilles Jolly, Muriel Machefer, Marc Depond, Guy Labadens, Catherine Mouriec et Charlotte Maingé) eta hiru musikariek ikuskizunean parte hartzen dute.

Le Petit Théâtre de Pain : « *Errautsak* »

Sinposia : sei lagun biltzen dira herriko plazan, hil berria den lagun baten errautsak botatzeko. Denak ikastolan egon dira elgarrekin. Errautsen dispertsioa egin aitzin, elgarrekin, herriko toki garrantzitsuenak bisitatzen dituzte azken aldikotz (herriko plaza...). Errito horren aitzakia dela medio beren arteko iraganaren mamuak agertuko dira.

Sei antzerkilari : Ximun Fuchs, Ander Lipus, Miren Gaztañaga, Manex Fuchs, Ainara Gurrutxaga, Urko Redondo.

Antzerkiaren idazketa, artista egonaldi denboran : 2009ko abendua, 2010ko iraila.

Bilboko Artedrama eta Donostiako Dejabu kolaborazioarekin.

Antzerkiaren lehen emanaldia : 2011ko, azaroaren 1ean, Lulusoko “Harri xuri” aretoan.

Théâtre du Rivage :

« **Eskimal kabiliarra** » antzerkiaren hedapenarako laguntza. Zuzendaritza artistikoa : Pascale Daniel-Lacome, testuoa : Karine Serres, antzezlea : Gorka Zubeldia.

Traboules :

« **Munduan gairdi** » : ipuin eta txontxongillo bi ikusgarri Koldo Amestoy, Cécile Le Maout eta Kittof Prudhomme artisteen parte hartzearekin.

1 – 6 urteko eta 7 - 9 urteko hurrei zuzendu emanaldiak.

Aurkezpenak : azaroaren 5ean frantsesetik eta azaroaren 17an euskaraz.

Lagunarte : « Artekatik'han » proiektua

Lagunarte konpainiak Lekorneko eskola publikoko hurrekin lan egiten du.
Helburua : Lekorneko herriari behako bat ematea.

Lekukotasun desberdinetik abiatuz, instalazio moderno bat publikoari aurkeztua izan zaioa.

Laguntzaileak : Aldudarrak bideo (Kanaldudeko Tokika emankizuna) eta Radio Kultura (lekukotasunen grabaketak).

Atelier : Dantza Hirian : « Aterpean »

« Tirauki traukian » dantza sorkuntza, Oskorri taldearen musika batetik abiatuz.
Dantzariak : Amaia Navascues, Izaskun Lapaza, Larraitx Ugartemendia. Arrabita joilea : Maria Lobero. Lehen emanaldia : irailaren 17an Donostian, "Aterpean" artista egonaldikari.

Zazpiak bat : « Oroitzapenetik bidaiarat »

Dantza, kantua eta antzerkia elkartzen dituen sorkuntza. Emanaldi horrek herriko elkarte kultural ezberdinak inplikatu ditu. Lehen emanaldia abenduaren 19an, igandearekin Saran. (Bigarren emanaldi bat Luhusoko Harri Xuri gelan 2011an emana izanen da)

Dariola : « Biribilketa, suite de rondes »

« **Biribilketa** » ikusgarriaren sorkuntza.

Artistak : Koldo Amestoy (ipuinak) eta Pascale Lascano (koreografoa).

Gaia : Euskal Herriko ipuinetarik et ohiduretarik abiatzen den ikusgarri bat da.

Lehen emanaldia : 2011ko martxoa.

Tokia Théâtre : « Kokolobatxi »

« Kokolobatxi » haur antzerki sorkuntzarako laguntza. Obra horrek uraren tematika lantzen du René Magritte margolari surrealistaren unibertsoan murgilduz. Lehen emanaldia Mauleko Mai en scène festibalean programatua da (2011ko maiatzaren 19tik 22ra).

Eleka : « Hau dela, hori dela »

« **Hau dela, hori dela** » **Ipuin antzeztuen sorkuntza**. Antzerki teknika eta kondalaritza ezberdin batzuen nahasketa haur eta helduentzat asmatua izan da. Ipuilariak : Kattalin Sallaberry eta Jokin Irungaray. Taula zuzendaria : Txomin Heguy.

ZTK : « Supitz »

« **Supitz** » ikusgarriaren sorkuntza : kantua, txalaparta, perkusioak, sua, joaldunak... Parte hartzaileak : Thierry Biscary, Paxkal Indo eta joaldunak. Taula zuzendaritza : Joselu Berasategi. Lehen agerraldiak : urriaren 24ean Errobiko festibalakari, agorriaren 1ean Baigorriin, irailaren 16an Bidarten, irailaren 18an Baionan eta abenduaren 21ean Anhaizen.

Herri Soinu : « Gaita luze », « Mutur zikin, bihotz bero »

« **Gaita luze** » sorkuntza, « Bi harriz lau xori » ekitaldi kari Biarritzen aurkeztua izana dena, martxoaren 28an. Errepertorio baten sorkuntza, Euskal Herriko et munduko musikan oinarriturik.

« **Mutur zikin bihotz bero** » sorkuntza (musika, dantza eta antzerkia), Olentzero gaiari buruz. Uztaritzeko Kiroleta pilota plazan aurkeztua izan da otsailaren 13an. Parte hartzaileak : 25 musikari, perkusionista, gaitero, arrabita joile eta esku soinu joile, sei dantzari, hamabost aktore, kondalari bat, lau teknikari. Taula zuzendaritza : Beñat Amorena. Dantza sorkuntzak : Mizel Théret. Jantzi sorkuntzak : Marie-Ange Amorena eta Christine Robérieux. Argiak : Roger Hirigoyen. Sonorizazioa : Ernest Hirigoyen.

Hebentik : « *Ekialdetik* »

“Hebentik hona” sailaren barnean, uztailearen 17an Santa-Grazin iragan da « **Ekialdetik** » sorkuntza Euskal Herriko eta Biarnoko parte hartzaile hauekin :

- Santa Graziko eta Larraïñeko dantzariak bai eta ere Biarnokoak eta Aragoikoak,
- Uztaro elkartearen arte plastikoa,
- Pierre Vissler,
- Altxaiko Suak konpainia.
- Textua : Titika Rekalt

Zarena Zarelako : « *Goazen* »

« **Goazen** » ikusgarria, euskal dantza eta atzeritar urratsen nahasketa, hamar bat neskek emanik.

Zuzendaritza eta koreografiak : Pascale Lascano

Jantziak : Catherine Kraushaar eta Mélanie Bessonart

Soinua : Jérôme Casamayou

Argi eta soinu : François Tortor

Laguntzaileak : Benoît Lamerain, Claude eta Jon Iruretagoiena.

Lehen emanaldia : Biarritzeko Colisée gelan, apirilaren 10ean.

Kitzikazan/k : « *Libertimendia* »

« **Libertimendia** » deitu dantza-antzerki ikusgarri baten kanpoan emaita, Donapaleun 2010eko otsailaren 7an.

Kabalkadan parte hartu dute : Burgaintziko dantzariak, zirtzilek eta bertsulari gazteak (Mattin eta Bixente Lucu, Bixente Hirigaray, Ximun Casaubon).

Antzerkiaren idazlea : Mattin Irigoyen.

Garaztarrak : « *Libertimendua* »

« **Libertimendia** » deitu dantza-antzerki ikusgarri baten kanpoan emaita, Donibane Garazin 2010ko otsailaren 14ean : baxenabarreko kabalkada karraketan eta Antton Luku-k idatzi ikusgarria, Navarre lizeoko ikasleek aurkezturik. Punpeka taldearekin musika animazioa.

❖ ENTZUN IKUS EKOIZPENAK

Euskal Irratiak : irratietako euskal emankizunak

- « Kantaire » eta « Eman bostekoa » emankizunen sorkuntza eta hedapena lau irratietan : « Gure irratia », « Irulegiko irratia », « Xiberoko botza » eta « Antxeta irratia ».
- Euskal kultur erakundearen harat-hunaten berri, irratietan zabaltzea.

Aldudarrak Bideo : « Gut'artean »

Gut'artean, Aldudarrak bideoaren ekoizpena, musikaren eta artearen inguruan den emankizun berri bat da, Kanalduden ikusten dena. Publikoan grabatua da, eta eskualdean ari diren artistak ezagutarazteko parada da.

Iparraldeko konpilazioa

Iparraldeko musika ez profesional taldeen 6. Konpilazioaren edizioak Underneed, Enterprise, Zezenaren taldea, Kadjoo, Tximak, Red Hot Nipples, Zaparrada eta Baptiste Daleman taldeak bildu ditu. Selekzioa Lanetik Egina, Atabal, Direction Départementale Jeunesse et Sports eta EKE epaimahaia osatzen duten elkartek eta egiturek egin dute.

Urtero bezala, talde hautatuek kantu bat grabatzen dute Amanita studio profesionalean, aurkezpen kontzertu batean ari dira eta heien konpilazioa interneten (www.iparraldekokonpilazioa.org gunean) eta 500 binilio bitartez hedatua da.

Aurten azpimarratzekoa da proiektua garatu dela konpilazioaren bost aurkezpen kontzertu antolatuz Iparraldean. Horrela, lurraldeko benetako proiektu baten itxura hartu du Atabal gelatik ateratuz gero.

Kontzertuak konpilazioko talde batzuekin eta talde ezagun batekin osatuak izan dira aldi bakotx :

10/29 Hendaia, Merkatuan : *Les Ramoneurs de Menhirs, Tximak eta The Red Hot Nipples* (400 pertsona). Antolaketa : Lanetik Egina elkarte.

11/6 Hazparne, Ttattola Gaztetxean : *Willis Drummond, The Enterprise eta Zaparrada* (200 pertsona). Antolaketa : Lanetik Egina elkarte.tokiko taldearekin.

11/12 Itsasu, Goxoki Gaztetxean : *Opium du peuple, the Sparteens eta Zezenaren Taldea* (300 pertsona). Antolaketa : Lanetik Egina elkarte. tokiko taldearekin

11/27 Biarritze, Atabal. *Israel Vibration eta Kadjoo* (700 pertsona).

Antolaketa : Lanetik Egina elkarte. tokiko taldearekin.

12/4 St Pée sur Nivelle : *Mikel Hats, Underneed eta Zezenaren taldea* (400 pertsona). Antolaketa : Lanetik Egina elkarte. tokiko Besta komitearekin.

Partaideak : Lanetik Egina elkarte – Atabal – Direction Départementale Jeunesse et Sports

HEDAPENA

❖ EUSKAL ARTISTEN HEDAPENA BIZKORKI SOSTENGATU

Euskal artisten hedapena

Kalitateko euskal kultura adierazpena iraunkorki sustatzeko, beharrezkoa da beraz sareak azkartzea eta biderkatzea elkarte eta erakunde partaide desberdinekin. Bestalde, harreman bereziak asmatu behar dira Frantzia eta Europa mailan sail hortan berezituak diren hedapen egituretan oinarrituz.

Ekintza konkretu batzuen bidez emaitzak ekarriko dituen epe luzerako dela ikusirik, euskal kulturaren hedapena lehenik tokian berean eta Akitanian azkartu behar da, diren baliabide zentroen bitartez (OARA, adibidez) eta ondotik Frantzian eta Europan, ikusketa lan handi bati esker.

Gainera, mugazgaineko harremanak jarraitu eta azkartu behar dira egiazko trukaketa artistiko eta kultural politika izan dadin, udalen kultura zerbitzu eta euskal kulturaren aldeko elkarteekilako partaidetza batean oinarritua.

- Urtarrilaren 27an, « BRYGANTHYA » taldeak kontzertu bat eskaini du **Biarritzeko FIPA festibalean**, Euskal kultur erakundearen laguntzarekin.

Euskal kultur erakundeak lagundu edota programatu dituen beste euskal artistak ikusgai dira frantsesezko bertsioan.

❖ EUSKAL HERRI BARNEKALDEKO KULTURA EGITUREN EGITASMOAK LAGUNDU

■ “HARRI XURI” kultur gela / SIVOM Artzamendi – Lurralde kultur proiektua

Euskal kultur erakundeak Harri Xuri kultur gelaren lehen sasoia sostengatu egin du euskal antzerkiaren alorean. Batez ere Harri Xuri fabrikari hedatuak edo landuak izan diren lanak lagunduak izan dira.

Ikusgarrien hedapenari laguntza

- ✘ « Han izanik, hona naiz » ikusgarria - Apurka konpania - Harri Xuri gela (Luhusoa), martxoaren 19an.

Hegoaldeko konpania amatur horrek lan ona eskaini dio publiko zabal bati.

- ✘ « Erregea eta bufoia » ikusgarria - Ander Lipus Jon Maia - Xanoki gela (Itsasu) martxoaren 20an.

Gela bete da topaketa berezi horren deskubritzeko bertsulari famatu baten eta antzerkilari harrigarri baten artean. Publikoa liluratu da emanaldiarekin.

- ✘ « Gizona ez da txoria » ikusgarria - Dejabu konpania – AIEC gela (Kanbo) maiatzaren 21ean.

Antzerkia eta txotxongiloa uztartzen dituen emanaldi horrek Xalbador kolegioko ikasleak hunkitu egin ditu antzezleen lan finari esker.

- ✘ « Babiloniako loreak » ikusgarria - Fabrica de Teatro Imaginario konpania – Harri Xuri gela (Luhoso) maiatzaren 22an.

Hizkuntz anitzetako (euskara, gaztelania, latinoa) emanaldi horrek oheratua den amatxi baten azken egunak kondatzen ditu. Ander Lipusek (obraren taula zuzendaria eta aktorea) eta Bilboko antzerki taldeak eskainitako lan zoragarriak eta garaikideak bere ibilbidea egiten segitzen du publikoengana.

- ✘ « Errautsak » ikusgarriaren sorkuntza - Petit théâtre de pain / Artedrama / Dejabu konpainiak - Harri Xuri gela (Luhuso), azaroaren 1ean

Gela mukurru betea sorkuntza horrentzat. Emanaldi bikaina horrek Iparraldeko euskal antzerkiaren momentu azkar bat izan da.

- ✘ « Euria esan eta euria erortzea » ikusgarria – Gaitzerdi konpania - Harri Xuri gela (Luhuso) urriaren 9an.

Bilboko talde horrek lan ederra eskaini du estetika mailan heien sorkuntzaren euskal adaptazio hortan.

Ikusgarri egonaldieri laguntza

« Errautsak » ikusgarriaren lan eta errepika egonaldia - Petit théâtre de pain / Artedrama / Dejabu konpainiak - Harri Xuri gela (Luhuso) apirilak 13-23 eta urriak 10-31.

« Euria esan eta euria erortzea » ikusgarriaren euskaratze egonaldia - Gaitzerdi konpainia- Harri Xuri gela (Luhuso) urriak 2-8.

■ Eihartzea elkarte

Euskal kultur astea Hazparnen, urriaren 2tik 9ra

- Urriaren 4ean : « Euskal herria hortik harat » dokumentalaren aurkezpena, Lapurdiko hiru gazteen eskutik, Ameriketarako migrazioari buruz.
- Urriaren 5ean : Philippe Oyhamburu-rekin mintzaldia 1936.eko euskal iheslarien ekarpenaz,
- Urriaren 6an : “Hau dela, hori dela”, Kattalin Sallaberry eta Jokin Irungaray-en ipuin ikuskizuna,
- Urriaren 7an : “Paroles de Basque. Histoire d’immigrations » filmaren aurkezpena, Rubi Scrive-Loyer eta Beñat Cuburu Ithorotz-ekin.
- Urriaren 8an : « Oxo » ikusgarria Anne-Laure Royer eta Jean-Christian Irigoyen-ekin : zirkoa, antzerkia eta esku-soinua lagun.
- Urriaren 9an : « Han eta hemen », mintzaldia Jean-Baptiste Dirassar-ekin, eta arratsean kontzertua Nomadak TX taldearekin.

■ Garazikus elkarte

Euskal kultur programazioa urteko lehen sei hilean (artista egonaldiak, hedapena).

« Otto » ikusgarria urtarrilaren 12an Izpurako Faustin Bentaberry gelan (sei emanaldi eta 359 sartze), « Lur axaleko hitzak », Hebertik konpainiako ikuskizuna (ipuina eta musika) martxoaren 15ean eta 16an Donibane-Garaziko Le Vauban gelan, « Baba zango horiak » Théâtre des Chimères konpainiako emanaldia apirilaren 6an Donibane Garaziko Le Vauban zinegelan eta artista egonaldia Arrosako zinegelan “Oncle Vania” sorkuntzarentzat, apirilaren 12tik 17ra.

■ Hebentik elkarteak : Xiberoko eskualdea

« **Hebentikenean** » kultur topaketak herri desberdinetan eta gai hauen inguruan : musika, dantza, pailasoa, bertsularitza, suak, filmak eta « Klun eguna »ren antolaketa.

- Martxoaren 6an : Xiberoko maskaradak eta Moldaviakoak : Xavier Pinon-en filma bat 1993an eginik Urdiñarbeko maskaradetaz eta Nicole Lougarot-ren argazkiak 2009an eginik errumaniako Moldavian.
- Maiatzaren 8an : kontzertua Beñat Achiary (kantua) eta Philippe De Ezkurra (esku soinua).
- Ekainaren 13an : Pierre Vissler-ek zuzendu pailaso taillerraren aurkezpena.
- Urriaren 23an : « Klun eguna » Maulen : Pierre Vissler arduradun nagusi.
- Abenduaren 4ean : Santa-Graziko Txomin Peillenek bere obrak aurkeztu ditu.

■ Traboules elkarteak : Heleta

Euskal artistak Heletako Itsasoan : Xano Halsouet, Jabier Barandiaran, Itxaro Borda, Maddi Oihenart eta Pantxix Bidart (Hitzak musikan), Amaren alabak eta Kalakan (Paxkal Indo / Thierry Biscary).

■ Bardozoko gaztetxea - Bardoze

Bardozoko ihauteriak : erakusketa Bardozoko jauregian otsailaren 18tik 28ra, arratsaldeko 15.00etatik 18.00etara eta Beñat Zintzo Garmendiarekin mintzaldia Euskal Herriko ihauteriez, otsailaren 19an.

« Xarnegu eguna », bretoindar eta euskal musika topaketa apirilaren 17an Bardozen. Partehartzaileak : Otxalde, Bagad ker Vourdel, Begiz begi, Landa S, Moskorri eta Leinua taldeak.

❖ IKUSGARRINTZAREN HEDAPENA SUSTATZEA BESTE HERRIETAN (ANTZERKIA, DANTZA, MUSIKA)

■ Aiziritze – Euskal kultur elkarteak

Azaroaren 14ean Aiziritzen – Kantaldia. Kantariak : Daniel Aire-Xalbador eta Gérard Ihidoy, Eñaut Etchamendy eta Mikel Erramouspé, Maitena Béhéran, Agustin Alkhat eta Battitt Elissalde, Xendarineko Ahizpak, Gazteak, Gaëlle Larroudé eta Amikuze kantuz.

■ **Larresoro** – Ote Lore elkarte

Euskal kulturaren hedapena Larresoron, 2010.eko urtea eta Jon Doni Martine bestakari : « Hau dela, hori dela » Eleka elkartearen ipuin ikusgarria Kattalin Sallaberry eta Jokin Irungaray-ekin, azaroaren 12an.

■ **Makea** – Jostakin elkarte

« Beñaten pentzea » eta « Makea.net », euskal antzerkien sorkuntza, Makeako eta Lekorneko 17 gazteek emanik uztailaren 15ean eta azaroaren 21ean.

■ **Ezpeleta** – Pinpulka elkarte

Eleka konpainiaren « Hau dela, hori dela » ikusgarriaren hedapena Itsasuko Sanoki gelan 2010/12/26an

■ **Altzürükü** - Goiz Argi elkarte

« Gaü izartsü » kantaldia Altzürüküko elizan, uztailaren 23an.

❖ **IKUSGARRINTZAREN HEDAPENA SUSTATZEA** **(ANTZERKIA, DANTZA, MUSIKA)**

■ **Elirale : « Otto »**

Pantxika Telleria / Joxelu Berasategi

Artistak : Jose Cazaubon, dantzaria - Joxelu Berasategi, antzerkilaria - Joseba Irazoki, musikaria.

Taularatzea : Pantxika Telleria - akzesorio sortzailea : Annie Onchalo - jauntzi sortzailea : Karine Prins, argi-sortzailea : Javi Ulla - testu ber-idazketa : Amaia Hennebutte-Millard,

Euskal dantza aholkularia : Ion Maya.

- 4 emanaldi Maulen, urtarrilaren 7an eta 8an.
- 6 emanaldi Donibane-Garazin, urtarrilaren 11an eta 12an.

■ Dariola : « *Biribilketa* »

« **Biribilketa** » ikusgarriaren sorkuntza.

Artistak : Koldo Amestoy (ipuinak) eta Pascale Lascano (koreografoa).

Gaia : Euskal Herriko ipuinak et ohiduretarik abiatzen den ikusgarri bat da.

■ Azika : « *Barne iluna* »

« Barne iluna » euskarazko ikuskizunaren haurrentzat bi emanaldi Donibane-Lohizuneko entzutegian, Maurice Ravel aretoan, ekainaren 27an.

■ Leinua dantza konpainia : « *Sakratua* »

« Sakratu » ikusgarriaren hedapenarentzat laguntza. Kudeantza artistikoa : Roger Goyeneche. Musika zuzendaritza : Patrick Larralde. Testuak : Jean-Louis Davant.

Emanaldiak : martxoaren 27an Milafrangako elizan, apirilaren 4ean Mugerreko elizan, urriaren 23an Itsasuko elizan, abenduaren 18an Hazparneko elizan.

■ Bertsularien Lagunak (egoitza soziala : Senperen)

Bertsularitzari buruzko ekitaldien koordinaketa.

Transmizioa, saioen antolaketa :

- Bertsu-saioak : Urtarrilaren 23an saran, otsailaren 14ean Hazparnen, Otsailaren 19an Pausun, Martxoaren 6an Muskildin, martxoaren 12an Itsasun, uztailaren 11an Hendaian, uztailaren 14ean Maulen, uztailaren 18an Donapaleun.
- Hernandorena saria : martxoaren 13an Larresoron, martxoaren 27an Doninbane-Garazin, finala apirilaren 10ean Muskildin.

2010eko maiatzaren 29an Baionan iragan den 15 eta 18 urte arteko bertsularien finalean, Mattin Luku garaztarrak jantzi du txapela, Maiana Irigoyen eta Txomin Elosegiren aitzinean.

« Iparraldeko bertsu txapelketa »

- Irailaren 18an Muskildin :
Odei Barroso, Patxi Iriart, Bixente Hirigarai, Ximun Cazaubon eta Ramuntxo Christy.
- Irailaren 25ean Aiherran :
Miren Artetxe, Xumai Murua, Mattin Luku, Kristiñe Txoperena, Txomin Elozegi et Gillen Hiribarren.
- Urriaren 2an Saran :
Ekhi Erremundegi, Mixel Aire Xalbador, Bixente Luku, Eneritz Zabaleta, Maindi Murua eta Xan Alkhat.

- Lehen finalaurrekoa urriaren 16an Luhuson : Amets Arzallus eta sailkatuak.
- Lehen finalaurrekoa urriaren 23an Gabadin : Sustrai Colina eta sailkatuak.
- Finala azaroaren 13an Donibane-Lohizuneko Jai Alaiean.

Gai-egileak eta emaileak : Aitor Renteria, Joana Itzaina, Maurice Aguerretche, Lierni Elortza, Maritxu Lopepe, Pantxika Solorzano.

Epaileak : Jon Garmendia, Eneko Bidegain, Joakin Arregi, Beñat Soulé, Asier Ibaibarriaga.

■ Iparraldeko dantzarien biltzarra (IDB) (Egoitza soziala : Luhuso)

Formakuntza taillerak : “Berako makilak” Arbotin, « Betteluren fandangoa » :
otsailaren 27an Baigorriin, martxoaren 13an Hendaian.

Ikusgarrien hedapena : « Goazen » ikusgarriaren hedapena Baionan maiatzaren 1ean, « Dantzari eguna » maiatzaren 2an Baionan, « Dantzari ttiki » maiatzaren 8an Angelun, euskal jauziera buruzko mintzaldia Claude Iruretagoienarekin, « Aurrez aurre » ikusgarria Luhuson ekainaren 12an bai eta ere “Goazen” ikusgarria irailean toki berean, “Mutxikoaren eguna” Arrangoitzen Aiko taldearen parte hartzearekin, “Gernika” Aukeran taldearen ikusgarria abenduaren 11an, Luhuson.

Baliabide iturri: dantzari buruzko argazki, bideo, disko eta liburuen biltzea eta sailkatzea.

■ ZTK : « Kalakan » bikotearen hedapena

« **Kalakan** » taldearen hedapena (Paxkal Indo, Jean-Michel Bereau eta Thierry Biscary).
Ikusgarrien egutegia : Zurich (martxoaren 2an), Bordalen (martxoaren 8an), Séville-n (martxoaren 14ean), Parisen (martxoaren 22an), Postdam (maiatzaren 8an) , Donibane-Lohizunen (maiatzaren 16an) , Baionan (ekainaren 21ean), okzitanian (uztailaren 15ean), Heletan (agorrilaren 15ean), Parisen (urrian), Bordalen (abenduaren 5ean), Durangon (abenduaren 8an)...

❖ FESTIBALAK ETA TOPAKETAK LAGUNDU

« Hartzaro » festibala otsailaren 5etik 16era Uztaritzen

Herri soinu elkartea

Otsailaren 5etik 16rat : Argazki erakusketa : « regards croisés » J. Claude Broca, Kepa Etchandy, Gaizka Iroz, Daniel Velez eta Michel Palmiero-ren argazkiak.

Otsailaren 5ean ostiralarekin : Filma eta mintzaldiz, Latsan : « Euskal Herria hortik hara » egindako filmaren aurkezpena. Kandan eta Argentinan hiru gazteek egin duten bidaia, bere gogoeten berri ematen dute « Nola diasporako euskaldun gazteek bizitzen ote dute haien kultura ? »

Otsailaren 10ean asteazkenarekin : Hitzaldi/mintzaldi : « Buhamien eragina Euskal Herriko ihauterietan », Nicole Lougarot-en, « Les bohémiens » liburutik oinarrituz.

Otsailaren 6an larunbatarekin : Arruntzako elizan kontzertua « Amaren alabak », eta « Balkanoak », (Bulgariako lau andereen ahotsak).

Otsailaren 7an, igandearekin : bat bateko errezitaldia, Kaperan : Amets Arzallus (bertsua) eta Ortzi Oiharzabalekin (arrabita).

Otsailaren 12an, ostiralarekin : Ostatu-kontzertu gaualdia : Latsan : Alboka tropa - Kiroletan : « Dorrea » dantza ikusgarria Mizel Théret koregrafo eta dantzariarekin.

Otsailaren 13an, larunbatarekin : Ikusgarri gaualdia : lehen parte, Donostiako « Aukeran » konpainiarekin ; bigarren parte « Mutur zikin, bihotz bero » emanaldia, Olentzeroren mitoari loturik, Beñat Amorenak (musika) eta Mizel Théret-k (koregrafia) agerraldi berri bat sortu dute, musika et dantzaren inguruan. Burrunka taldea eta dantzari batzuen parte hartzearekin.

Otsailaren 13an, larunbatarekin : Haurrentzat : artista gazteen ikusgarria, Kiroletan : DRAC, Hezkunde Nazionalaren, EKE, OPLB eta Haltsu, Jatsu, Larresoro, Uztaritze eta Baionako Idekiako eskolen laguntzari esker, zortzi gelek tailerra artistikoak egin ahal izan dituzte eta festibalaren kari aurkeztu. Dantza tailerrak : Ena Bernard, Lorentxa Ithurralde, Jose Cazaubon eta Elirale konpainiarekin eta musika tailerrak Paxkal Indo eta Philippe Albor-ekin.

Otsailaren 14ean, igandearekin : Bertsulariak Latsan : Patxi Iriart, Ekhi Erremundegi, Ximun Cazaubon ; animazioa : Hiru Karakoilak taldearekin.

« Xiru » festibala martxoaren 26etik 28ra Gotaiñen

Abotia elkartea

Xiru 21. urtea. Musika eta sorkuntza jaialdia Xiberoan.

Martxoaren 26an, 14etan : Xiberoko haurrentako ikusgarria, antzerki, musika, kantore : Mihia luza (Ikas elkartearen partaidetzarekin).

21etan : Ütürzabala ikusgarria : Irabarneko arte ebilbidean, Xiruk urte oroz ezarri eskulturen erdian : Ander Lipus (antzerkilaria-Bizkaia) : « Hala mintzo zen

Zapatrusta », Suak (Xiberoa) : Sü eta ke, arte eta sua, sua bera arte..., Uztaro arte taldea (Mendikota) Bernard Combi (musika kantore-limousin eskualdea), Telamure (Italia zolako soinu-kantu), Gotaineko dantzariak, Sustrai Colina bertsularia (Urruña-Lapurdi). Ander Lipusen Zapatrusta arbasoa bezala, Xiberoko lurra zapa-trosta, bidea ebiliz urratzen beita !

Martxoaren 27an, 16etan : Maule baita gelan, Maulen : Mikel Laboari buruzko filma. Euskal munduko artista eta munduko euskal artistaren ohoretan. Maite ditut gure bazterrak...

21etan : « Bazterresak » gaualdia, Gotaine bazterreko gela erditan.

- Ekialde ikusgarriaren sortzea,

Martxoaren 28an, Gotainen, 15etan : Musikaldi, dantzaldi bazterretan harroaldi :

- André Minvielle (Biarnoko artista) : kantari, kalakari, jazzlari, Xiberoko auzoen bisitari, ez lehen aldi. Pauen sorturik, Lubat eta Nougareoren askazi, Gaskoinian hazi, hitzak musikaren hazi « Vocalximia » bazter orotan zaabalarazi.

Akzentuen biltzale, behazale eta ebiltzale. Hitz batez...zale !

- Oiherkoren txaranga (Xiberoa) : dantza, jauzi, exker eta...

- Alvaro Delatorre – Luis Salesa : Alto Aragoiko Xirula eta ttun ttuneroak.

- Antzekia : Ander Lipus, Xabi Strubell eta Mire Haztañaga (Bizkaia) : “Eta nik ere sagar bat daramat nire baitan”

- Julien Carretero : Radio Xiru

« Bi harriz, lau xori » festibala martxoaren 23tik 28ra Biarritz-en

Association Biarritz Culture, en partenariat avec l'association Herri Soinu

Biarritz Culture eta Herri Soinu elkarteek asmatutako programazioaren sustapena eta segitzea :

Martxoaren 23an : Les Découvertes aretoan, antzerkia « Babiloniako loreak » FTI taldeak emanik. **Martxoaren 24ean** : Colisée aretoan « Otto » haurrentzat ikusgarria Elirale konpainiak aurkezturik. **Martxoaren 25ean** : Colisée aretoan « Iglu » emanaldia Maddi eta Joseba Irazoki k aurkezturik. **Martxoaren 26an** Gare du Midi gelan Xarnege kontzertua Vieux Farka Touré-ren lehen partean. **Martxoaren 27an** : Les Découvertes aretoan, « Pello eta otsoa » haurrentzat emanaldia – Mediatekan Xabier Itçainaren mintzaldia « Soken aspektu sozialak eta kodifikazioak » - hiriko karriketan 6 dantza taldeen 6 soka desberdinen aurkezpenak – Udal-kasinoan « Sok 2 » sorkuntza Kukai konpainiak asmaturik. **Martxoaren 28an** : Kantu eta dantza eguna, Dianak, Mutxikoak Punpekarekin, kontzertua eta kantuak gaitaren inguruan (Gaita luze, Et Incarnatus taldea eta Baigorriko eta Iruñeko gaiteroak).

« Etiopikoak » festibala, martxoaren 1etik 6era Baionan

Ezkandrai elkarteak

Kontzertu eta animazio desberdinak Baionako hirian : pilotari buruzko ekintza, liburu azoka ttipi baten antolatzea Itxaro Borda eta Claude Labat-en presentziarekin, dantza Gaël Domenger-rekin eta artista egonaldiak.

« Errobiko Festibala », uztailaren 22tik 25era Itsasun

Ezkandrai elkarteak

✓ **Uztailaren 22tik 25era Errobiko festibala Itsasun**

Uztailaren 22an : mintzaldi eztabaida Jean-Mixel Bedaxagar, Xabier Itzaina, Beñat Achiary eta Danyel Waro (gaia : besta eta lokarriak). Uztailaren 23an : ibilaldi musikalak Jean-Christian Irigoyen eta Raphaëlle Doré artistekin, tango eta flamenco ikusgarria Atharri gelan. Uztailaren 24ean : besta gaiari buruzko mintzaldia : Claude Dendaletche, Serge Maury, Christian Coutzac, Beñat Achiary, Danyel Waro mintzalariekin, kontzertua Danyel Waro eta bere Reunion ugarteko taldea, Philippe Ezkurra, Suaparta taldea (Paxkal Indo et Thierry Biscary).

✓ **Peio Cabalette artistaren musika sorkuntzarako laguntza.**

« Dilin Dalan » maiatzaren 15 eta 16 an Heletan

Pestacles et Compagnie elkarteak

Heldu eta ttipientzako festibala. Bi egunez ikuskizunak, tailerrak, erakusketak, ipuinak, kontzertuak eta dantzak familia guziarentzat.

- Ikuskizunak : Xan Errotabehere-n « Gereziaren musu gorriak » ipuin emanaldia eta Pestacles et compagnie elkartearen « Bouts du monde »,
- Pantxika Solorzano et Euskal Haziak elkartearen « Bilintx » eta « Hazi bizi » diskoen aurkezpena,
- Euskal joko taillerak.

Bestalde, « Kamishibaï » ikusgarriarentzat artista egonaldi bat izan da Donibane-Garazin urriaren 18tik 22ra eta azaroaren 8tik 18ra.

Artistak : Koldo Amestoy, Kittof Prud'homme, Cécile Le Maout.

« Musikaren egunak » maiatzaren 12tik 16era Urdiñarben

Bil xokua elkarteak

- Maiatzaren 12an mintzaldia “Kultura bizitzen ahal dea hizkuntzarik gabe?”, EKE-ren izenean, Mikel Erramouspe-ren parte hartzearekin.
- Maiatzaren 14ean : « Gartxot » : Marrazki bizidunaren aurkezpena, Asisko Urmeneta bere kideekin, « irri antzerkiak » Jean-Louis Aramburu eta Nicolas Urrutyekin, “Zurbeltz” trikitixa eta djumbé nahasketa
- Maiatzaren 15ean, Urdiñarbeko elizan kantaldia : Jean-Michel Bedaxagar, “Pilpil” eta “Chjami Aghjalesi” kortsikar taldea, “Ezpela” txaranga.
- Maiatzaren 16an : Amaia Riouspeyrous-en kantaldia, xiberotar kantu eta dantzak...

« Mai en scène » festibala maiatzaren 28tik 31ra Maulen

Tokia théâtre elkarteak

Festibalaren zazpigarren edizioa, hainbat parte-hartzaile, laguntzaile eta artistekin, besteak beste :

- “**Arrastp bluak**”, Donostiako Gar Produksioak-en ikusgarria, maiatzaren 27an
- « **Close up** » - magia ikusgarria, Iñigo Gabilondo-rekin maiatzaren 27an eta 29an,
- « **Herensüge** », Uztaro elkartearen ikusgarria : Gonzalo Etxebarria, Elodie Baffalio, Dominika Rekalt, Jex Goyenexpe. Maiatzaren 29an aurkeztua.

« Haur antzerki topaketak » ekainaren 7tik 11ra Urruñan

Euskal haziak elkarteak

Hogeita bederatziko eskoletako eta bederatziko kolejoetako ikasleekin.
Zazpi eta hamabi urte arteko 400 haurrek antzertu dituzte 20 antzerki.
Laguntzailea : Frantxua Cousteau

« Euskal Herria Zuzenean » uztailaren 2tik 4era Heletan

Euska Herria Zuzenean elkarte

Animazioak eta kontzertuak :

- Uztailaren 3an : « Juglaera, Puta eta eroa », Le Petit théâtre de pain konpainiako antzerkia euskaraz, Hegoaldeko labur metraiak, hiru egunez zinema gunean, « Salda badago », Eriz Zapirain dokumentalaren aurkezpena.
- Uztailaren 4ean : Mister Saguak eta Bizardunak taldeekin kontzertua, « Goazen » Zarena Zarelako-ren dantza ikusgarria, txapalartari buruzko dokumentala, eztabaida eta erakustaldia Txomin Dhers eta Jean-Claude Enriquerekin (« Ttikia eta handia »)...

« Txotxongilo egunak » azaroaren 22tik 26era Hendaian

Akelarre elkarte

Ikusgarriak : « Hamaika gatazka » (El Tenderete konpainia) azaroaren 21ean, « Lodikroko » (Elirale konpainia) azaroaren 24ean, « Erreka mari » (Txontxongilo konpainia) azaroaren 25ean eta 26an.

« Rencontres improbables » festibala azaroan Baionan

Les lézards qui bougent elkarte

Bi musika performantzak : “**Argi beltza**” Baionako Kalostrape ostatuan azaroaren 20an Jimmy Arrabit trio eta Marko Armspach artistekin eta “**Bidaian**” azaroaren 27an Angeluko Barojako zalditegietan DJ Xano eta VG Omeo Kem-ekin.

« Txitularien topaketa » irailaren 19an Donibane-Lohitzunen

Musikari elkarteak

300 txitularien elgarretaratzea Donibane Lohitzuneko eta Ziburuko karruketan iragan da, Mariñelak Danborradaren 25. urtemuga kari.

« Eskolarteko Zine hamabostaldia » haurrentzat

Uda leku elkarteak

Euskarazko zine hamabostaldia irakaskuntzako hiru saretako ikasleentzat :
Filmak : « Lotte » (4 - 6 urte) eta « Lepel » (7 - 11 urte), urtarrilean eta otsailean aurkeztuak izan dira.

« Otxote koru festibala » maiatzaren 7an eta 8an Kanbon

Arraga abesbatza elkarteak

Parte-hartzaileak : Baionako « Aizkoa », Biarritzeko « Oldarra », Donostiako « Coro Easo », Añorgako « Ertizka », Arrangoitzeko « Adixkideak », Bordaleko « Otxote Lurra » taldeak eta festibalaren hamargarren urteburukari sortu den Kanboko « Zortzi iturri » koru gaztea.

❖ LITERATURA ETA EDIZIOA

■ Ekitaldiak Pariseko Liburu Azokaren karietara

Parisko Eskual Etxearekin partaidetzan, *Espace Cyrnea* kortsikar gunean gaualdi berezi bat antolatua izan da. *Beste Aldekoak*, Asisko Urmeneta eta Peio Etxekopar-en solasaldi umoretsuak, istorioen eta inprobisaturiko marrazkien bidez, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunei buruzko aurreiritziak aipatzen dituzte.

■ Hitzaditza : diktaketa euskaraz

Euskal kultur erakundeak eta AEK federazioak, bosgarren « Hitzaditza » diktaketa antolatu dute, maiatzaren 29an, Baionako IUTn.

Hiru maila proposatuak izan dira : 13 eta 16 urte arteko gazteak, euskara ikasten duten helduak eta Euskaldun trebeak. Berritasun handi bat aurtengo edizioarentzat : diktaketarako testuak, Baionako Bernat Etxepare eta René Cassin lizeoetako ikasleek idatzi dituzte « Hogeit'a » gaiaren inguruan. Berrogeita hamar bat testuen artean 3 hautatuak izan dira :

- « Irabazlearen sintoma » Mattin Luku (Bernat Etxepare lizeoa)
- « Lehen Hozka » Luxi Lavielle eta Eva Mutio (René Cassin lizeoa)
- « Hogeit'a » Bixente Luku (Bernat Etxepare lizeoa)

Testuak, Kattalin Sallaberry-k, Maite Deliar-ek eta Gaxuxa Elhorga-Dargains-ek irakurri dituzte.

Testu guztiak, « Hogeit'a » erakusketa kolektiboan baloratuak izanen dira. Irabazleek, sari ederrak irabazi dituzte.

■ Sarako Biltzarra

Sarako turismo bulegoa elkarte

XXVII. Sarako Idazleen Biltzarra apirilaren 5ean.

Idazleen ekoizpenen saltzeak eta izenpetzeak.

Eñaut Etxamendi eta Alexandre De La Cerda idazleak omenduak izan dira, eskaini duten uzta literarioa ezinago aberatsa baita eta euskal munduaren arabera ongi merezitua baitute.

■ “Hatsaren poesia eta olerki irakurketak”

Hatsa elkarte

- « **Euskal olerkiaren eguna** »ren antolaketa, 2010eko apirilaren 11an Senperen. « Hatsaren poesia » liburuaen aurkezpena eta poesia irakurketa. Liburuan, berrogeita hamar bat olerkarik parte hartzen du.
- « **Maite ditugun olerkiak** » .Egun osoko bidaia oinez, olerkari gomiatu bat bere obraz mintzatzen da.

■ Literatur solasaldiak

Maiatz elkarteak

✘ « Maiatz » literatura agerkariaren 50. eta 51. alearen argitalpena

✘ 26garren Literatura solasaldiak egunen antolaketa :

- maiatzaren 12an Baionako Euskal Erakustokian, parte hartzaile hauekin : Txomin Peillen, Laura Mintegi, Itxaro Borda. Animatzailea : Emilio Lopez Adan.
- Maiatzaren 13an Eusko Ikaskuntzaren gelan, Gotzon Barandiaranek aurkeztu ditu literaturaren hedapenari buruzko bideak, Literaturia, Literatura eskola, Ahotsenean, Durangoko azokaren kariatara egin ibilaldian. Topaketa bat antolatua izan da Bretania, Katalunia, Kortsika, Alsazia eta Okzitaniatik etorri aldizkarien ordezkariekin. Mahmud Darwich palestinar poetari omenaldi bat eskainia izan zaio Euskal museoan kantu eta musika emanaldi batekin : Pantxi Bidart, Beñat Achiary eta Jesus Aured.

■ « Burp » gaualdia Atalante zinegelan

BURP egitasmoa EKeren komanda bat izan zen Batekmila « Euskal munduak » erakusketaren parte izateko. Ondotik, ETB3ko dibertimendu emankizun bat bilakatu egin da. Lehen urtea ospatzeko (baita ere 26 minutako 44 emankizunak), Maiana Agorrody eta Jokin Etxeberria film egileak eta ekoizleak besta bat nahi izan dute antolatu Donostian, Bilbon eta Baionan. Horra nola zinemarako bertsioa bat zati batzuen aukeraketa batekin egin zuten, frantsesez azpigitulatu, Baionako Atalante zineman erakusteko apirilaren 14ean. Ondotik ekoizleen hitzak eta gero zinearen sarreran The Sparteens taldearen kontzertu-aperitifa Rencontres sur les docks festivalaren 6. edizioa idekitzeko. Tokia jendez gainezka egon zen.

■ Euskal zinea

Baionako Atalante zinean 4. Euskal zinearen gaualdia Roberto Caston film egilearen « Ander » obraren aurkezpenarekin. Obra hori Berlingo festival ospetxuan saritua izan da eta 40 bat festibaletan erakutsia, sari frango irabaziz gainera. Gela bete baten aurrean, Roberto Castonek publikoarekin oren bat baino gehiago eztabaidan egon da Eke-ko Frank Suarez eta Atalante-eko Sylvie Larroque lagundurik, erakutsiz filmak sortu duen interesa.

Partaideak : Atalante zinea

■ « Okatxu » - Euskal artzainak elkarteak

« Okatxu, hegal egiten », Asisko Urmeneta, Mattin Irigoien eta Adur Larrea liburuaren ilustraziorako laguntza.

■ Centre régional des lettres d'Aquitaine (ECLA) organsimoaren « **Lettres d'Aquitaine** » berriparan, euskal literaturari buruzko lau artikulu argitaratuak izan dira.

❖ ARTE PLASTIKOAK

▣ Ezpeleta

Begi Argi elkarte

Udako erakusketa Ezpeletako gazteluan, uztailaren 23tik agorrilaren 21era.
Gaia : « lhauteriak ».

▣ Donibane-Garazi

Argian elkarte

XVIII. argazki erakusketa Donibane-Garazin.
2010eko irailaren 4etik 19ra.
Erakusketa eta leihaketa (gaia : « mahastia eta arnoa »).
Sarien emaita irailaren 19an Donibane-Garaziko herriko etxean.

▣ Donibane-Garazi

Itzal aktiboa elkarte

Laugarren « Emazteen artea » erakusketa Donibane-Garazin, martxoaren 8tik apirilaren 11ra. Hona zein izan diren artistak : Agurtzane Andueza, Josette Dacosta, Martine Pinsolle eta Barbara Stammel.
Bisita gidatuak eta elebidunezko jokoak asmatuak izan dira eskolako haurrentzat.

▣ Lasa

Zirrimarra elkarte

Arte tailerrak haurrentzat (euskaraz eta frantsesez) Garazi – Baigorriko 30 haurrentzat.
Erakusketa bat ikusgai izan da La Citadelle karrikako karrikako gela batean, Donibane Garazin, ekainaren 19tik 30era.

📍 Bayonne

Ur taldea elkarte

- Urtarrila/otsaila/martxo : Baionako Gaskoinen plazako CCAS gunean artista gazteen erakusketak,
- Ekaina/Uztaila : Baionako Kalostrape gunean erakusketa, artista hauen obreekin : Rosa Valverde, Xabier Morras, Letamendia, Ricardo Pascual, Ainize Butron, Peio Goio, Javier Soto, Jose Mari Apezetxea, Tomas Sobrino, Iker Valle, Piert Art, Patxi Buldain, Agurtzane Andueza.
- Irailaren 1etik 30era Baionako Kalostrapen erakusketa : Maia Letamendia eta Irantzu Barturen.
- Azaroaren 2tik 30era Baionako Kalostrapen erakusketa : Rikardo Pascual, Ainize Butron eta Kepa Arizmendi-Bereau-ren obrekin.

📍 Ziburu

Itsas begia elkarte

« Euskaldunen burdina » : Bizkaiko burdinari buruzko erakusketa elebiduna eta ibilkaria. Itsas ondarearen transmizioa.

❖ EUSKAL KULTURA MUNDUAN GAINDI

📍 Parc de l'Aventure basque au Québec

PABA elkarte

Euskal kulturaren hedapena Québec hirian : uztailaren 31tik agorrilaren 8ra, iparraldeko artista batzuekin, besteak beste Ezpeletako txarangaren parte hartzea.

📍 Noka taldearekin trukaketak eta Jean Bordaxar-en taldea Ameriketara gaindi

Arrokiaga elkarte

- Noka taldeak kontzertuak eskaini ditu Euskal Herrian : agorrilaren 10ean Azkainen, agorrilaren 12an Amurrion, agorrilaren 13an Larrañen eta agorrilaren 14ean Gaiñdineko kantu festibalean.
- Jean Bordaxar, Jean-Pierre Luro, Jean-Noël Pinque eta Robert Larrandaburu kantariak kontzertuak egin dituzte San Francisco-ko Euskal etxean agorrilaren 28an eta Chinon irailaren 4ean.

📍 Barzelonako Euskal etxea (Centre cultural vasco)

Euskal Herria Sona festibala kari, Iparraldeko euskal artisten kontzertuak Barzelonako CAT kultur zentroan : Amaia Riouspeyrous azaroaren 12an eta Andoni Aguirre pianista azaroaren 13an.

Arartekotasuna ekintzen erdian

❖ WWW.EKE.ORG, EUSKAL KULTURAREN BALIABIDE NUMERIKOA

Hiru lan ardatz nagusi garatu ditugu 2010ean, www.eke.org atariko edukien aberastasuna eta hedapena hobetzeko asmoz :

- ✓ sareko edukien sortzea eta eguneratzea
- ✓ atariko edukien ikuspen hobe baten bilaketa
- ✓ atariko bisita kopuruen eta egutegiko kultur gertakarien jarraipen estatistikoa

A/ Sareko edukien sortzea eta eguneratzea

Ataria egunero eguneratu dugu euskaraz eta frantsesez, ipar Euskal Herriko kultura aktualitatearen berri emateko, besteak beste “Agenda” eta “Albistea” deitu atalen bitartez (astero newsletter baten bidez hedatuak direnak gainera).

Bestalde, sekula baino gehiago, tresna eta eduki gehiago argitaratuak izan dira 2010ean (euskaraz eta frantsesez, beste batzuetan gaztelera eta ingelesez ere), ataria etengabe aberastuz.

- **Elkarrizketak euskal kulturaren eragile batzuekin :**
Hilabetero, erreportai bat egin izan da euskal artista edo euskal kulturaren eragile batekin, Euskal kultur erakundearen eta eitb.com atariaren arteko partaidetzaren kariatara. Elkarrizketa horiek EKEren eke.org atarian ere sartuak izan dira.
- **“Euskal dantza”-ren inguruko atalaren aberastea :**
Juan Antonio Urbeltz koreografoaren eta antropologoaren entzun-ikusezko grabaketa bat egin izan da (osoki ikusten ahal dena eke.org atarian).
Irisarriko toberen inguruko web orrialde batzu sortu ditugu, bereziki 1937ko toberaz.
- **Ahetzeko latsagiaren zahar-berritzeari buruzko multimedia txostena**
Tokiko eragileen eta zahar-berritzearen testu-inguruaren aurkezpen bat egin izan da. Diaporamak eta bideo lekukotasunak sortu ditugu ere.
- **Patchiku itsasontziaren zahar-berritzeari buruzko multimedia txostena**
2002an Monumentu Historiko bezala sailkatu itsasontzi honen zahar-berritzeari buruzko argazki-erreportai bat eta soinu elkarrizketak eginak izan dira.

- **www.iparraldea.com bideo-bloga**

5 hizkuntzako webgunea sortu dugu (euskara, frantsesa, ingelesa, gaztelera eta katalana), 2009an Euskal kultur erakundeak ekoiztu ipar Euskal Herriari buruzko "Iparraldea XXI" dokumentala ikusteko para eskaintzen duena.

Bestalde, « Iparraldea XXI » bideoa « Hamaika telebista »n eta Bilboko kafe antzokian aurkeztua izana da.

- **Hitzaditza euskal diktaketaren bloga**

Hitzaditza.com helbidean sartuz, Hitzaditzan izena eman daiteke, diktaketaren testuak irakurri, emaitzak ikusi...

- **www.euskalmunduak.com**

Partaidea : Gipuzkoako Foru Aldundia

Hornitzaile kidea : Elea enpresa

"Batekmila-Euskal Munduak" multimedia erakusketaren eduki guziak (argazkiak, bideoak, testuak...) webgune horretan ikusgai dira flash aplikazio baten bidez. Hori dena bost hizkuntzatan (euskara, frantsesa, ingelesa, gaztelera eta katalana). Dispositibo hori « Gure euskal munduak » aplikazioarekin osatua da : programa berezi bat bisitariari argazkien bidez bere euskal munduen ikuspegia partekatzeko aukera ematen diona sare sozialen moduan.

- **Iparraldeko festibalen eta gertakari kulturalen gida**

2010eko udaberrian egin informazio bilketa lanaren ondorioz, Euskal kultur erakundeak sareko atal berri bat estreinatu du iparraldeko festibalak eta kultura gertakari nagusienak ezagutarazteko asmoz. Atal hau 2009an sarean ezarria izan den artisten datu-basearen, Euskal kultur erakundeak sostengatu sorkuntzen katalogoaren eta ipar Euskal Herriko ikusgarri gelen gidaren osagarri da.

- **Guillaume Apheça emigratio agentearen erregistroen sarean ezartzea**

Partaidea : Euskal Argentina elkarteak – Baxe-Nafarroako Museoaren Adixkideak elkarteak

Hornitzaile kidea : CodeSyntax enpresa

Guillaume Apheçaren artxiboek xehetasun apartak ematen dituzte Argentinako euskal emigratioaren ulertzeko. Bereziki, 1856tik 1913a arteko abiatze eta ordaintze erregistroek. Euskal kultur erakundeak, Euskal Argentina elkarteak eta Baxe-Nafarroako Museoaren Adixkideak elkarteak bildu dira erregistro horien bertsio arin bat publiko zabalaren esku uzteko www.eke.org atarian. Datu-base horretan, bilaketak abiatze urtearen, herriaren edota izenaren arabera egin daitezke.

Helbidea : www.apheca.eke.org

- **“Durango 2010” txosten berezia**

Txosten berezia osatua izan da, Iparraldeko argitaletxeen presentziaz Durangoko Liburu eta Disko Azokan, argitaratzaileen aurkezpen eta berritasunen katalogoarekin.

B/ Atariaren ikuspenaren bilaketa

- **Euskal kulturaren inguruko eremu baten sortzea Netvibes sareko agregatzailean**
Netvibes sareko agregatzaile ezagunenetan da : tresna horrek informazio iturri ezberdinak denbora berean jarraitzeko aukera eskaintzen du RSS harien bidez. Horrela, netvibes.com/eke helbidean, internautek orrialde berean ikus ditzakete atariko eduki nagusienak : albisteak, egutegia, elkarrizketak, bideoak, argazkiak... Bestalde, atariak sare sozialetan daukan presentziaren sintesia bat erakusten du.

- **Sare sozialen animazioa**

2010ean, Euskal kultur erakundeak bere presentzia areagotu egin du sare sozialetan : Fabebook-en (soslaien migrazioa eta orrialde desberdinen sortzea, horien artean atariaren aktualitatea lotua dagoen bat : facebook/euskal.kultura) eta Twitter-en eke.org atariko edukien hedatzeko.

- **Iragarki kanpaina batzu sarean**

Atariko edukien promozioa egiteko (“Iparraldea XXI” dokumentala eta “Batekmila-Euskal Munduak” erakusketaren sareratzea), bi iragarki antolatu eta kudeatu ditugu Google Adwords-en bidez.

Iragarki horiek bereziki gazteek bisitatu webguneetan (Youtube, Facebook, Myspace...) agertu dira.

Iragarkiak 2 milioi aldiz baino gehiago agertu dira Youtube edo Myspace bezalako guneeetan.

5000 bisita baino gehiago ekarri dituzte www.eke.org atarira.

- **Partaidetzak eke.org atariko euskal kulturaren agendaren hedapenarentzat**

Elkarlan bat finkatua izan da Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren kulturklik.euskadi.net atariarekin Iparraldeko kultura gertakarien agendaren hedatzeko.

Oharra : 2010ean, eke.org atariko agenda, www.kazeta.info euskarazko egunkari elektronikoan hedatua izan da, Iparla Communication elkartearekilako partaidetza baten kariatara.

C/Atariaren bisita kopuruen jarraipen kalitatiboa eta kantitatiboa

- **Inkesta baten egitea sarean**

Inkesta hori « Eke-berriak » berri-paper elektronikoko harpidedunei igorri izan zaie . Bildutako emaitzak : iritzia bidalketaren maiztasunaz, edukietaz... Emaitza guztiak eke.org webgunean ikusgai dira.

- **Atariaren bisita kopuruaren jarraipen estatistikoa hilabetero**

Hilabetero, eke.org atariaren eta loturiko guneen bisiten kopurua jasotzen duen arbel bat ateratzen dugu.

- **Euskal kultura agendaren behatoki baterantz**

Kultura agendaren sailkapen modalitateak hobetu dira, programatu gertakarietaz estatistika batzuen osatzeko (motaren, herriaren, hilabetearen arabera...).

www.eke.org – Datu batzu 2010ean :

- 128 albiste argitaratuak izan dira euskaraz eta frantsesez
- Agendako 1042 gertakari hedatuak izan dira euskaraz eta frantsesez
- Atariak 262 683 bisita ukan ditu 2010ean (2009an baino %29a gehiago)
- 1 409 820 orrialde ikusiak izan dira 2010ean (2009an baino % 86,5a gehiago)
- 1023 harpidedun badira frantsesezko hedapen zerrendari
- 1139 harpidedun badira euskarazko hedapen zerrendari

Euskal kulturaren agenda

Iparraldearentzat, 853 gertakari bilduak izan dira :

Motaren arabera banaketa

Erakusketak : % 10,55a

Ikusgarriak (dantza, antzerkia...) : % 16,06a

Jaialdiak-Jardunaldi tematikoak : %4,92a

Mintzaldiak : %7,85a

Animazioak (arteak, kantua, musika, dantza, antzerkia, ondarea, bideo emanaldiak...) : %24,62a

Tailerrak-Ikastaldiak : %1,41a

Bertsu saioak : %4,10a

Kontzertuak : %30,48a

ELKARTE PARTAIDEERI EMAN DIRAGUNTZA :

➔ Errobi promotions

Bost kultur eragilen elkarrizketatzea(Radiokultura-ren bidez) eta grabaketa horien soinuak www.eke.org gunean hedatzea.

➔ Euskal Herri kultur klub elkarteak

« **Topo** » egitasmoa : internet plataforma baten bidez, gazteei xerbitxu gune bat eskaini : lurraldearen ezagutza, artista amaturren praktikak ezagutarazi...

➔ Iparla komunikazioa

Iparla komunikazioa elkarteak « **kazeta.info** » animatzen duen kazeta elektronikoaren bitartez Euskal kultur erakundeak laguntzen edo eramaten dituen ekimenei tratamendu berezi baten eskaintzea.